



**Sopelako pandero-joleek ikasturte-akabuko festa egingo dute ekainaren 22an, Meñakoz kultur elkarteak antolatuta.** ▶19

**Jone Uriak abestuko du Beñat Gaztelumendigaz Balkoitik Balkoira bertso-saioan, bariku honetan, hilaren 17an, Etxetxu plazan.** ▶17



# hiruka

Uribe Kostako astekaria



**64. zenbakia**

2016ko  
ekainaren 16tik  
ekainaren 22ra arte

## Suaren inguruan dantzan!

**Ekainaren 23ko gauean** suak argituko du eskualdeko zerua, San Juan bezpera edo udako solstizioa ospatzeko.

**Uribe Kostako herri guztietan** egongo da zertaz gozatu; suagaz batera, ohikoa da txokolate-jana...

**Leioan eta BARRIKAN** sanjuanak dira herriko jai nagusiak; ekainaren 26ra arte iraungo dute ospakizunek.



**Uda Txiki udaleku** irekiak egingo dituzte BARRIKAN, 4-10 urte bitartekoentzat. Hilaren 20an informazio-saioa egongo da. ▶6

**Seme-alabakaz musikagaz jolasteko** saioa egingo dute Urdulizen, hilaren 22an, kultur etxean. ▶7

**Leioako leku-izenak ezagutzeko** ibilaldia antolatu du barikurako, ekainak 17, Berbaldun egitasmoak. ▶18

**Gehigarri berezi batean** jaso ditu HIRUKAk BARRIKA, Leioa eta Sopelako jai nagusien berriak. Ondo pasa jaietan! ▶9-16



Bizkaiko Zubian eta Portu Zaharrean egingo dituzte ekimenok. © GETXOKO UDALA

## Antzeztutako bisita gidatuak

**A**urton ere, Turismo Bulegoak bisita gidatuak eskainiko ditu udalerriko baliabide turistiko garrantzitsuenak modu «dibertigarrian eta didaktikoan» ezagutzera emateko. Bisitak hilaren 4an hasi ziren, eta urriaren 9ra arte egingo dira; 60 minutu iraungo dute, eta Bizkaiko Zubian eta Portu Zaharrean egingo dira. Horien bitartez, parte-hartzaileei baliabide turistikoaren historia kontatuko zaie, non dauden, eraiki ziren garaiko testuingurura hurreratzuz, eta orduko pertsonaia ospe-

tsuak eta garaiko biztanleen bizimoduak eta ogibideak aurkeztuz, besteak beste. Bisitak 11:30ean hasiko dira, eta ez da beharrezkoa izango alde aurretik lekua gordetzea; zapatueta, Bizkaiko Zubian izango dira, eta domeketan, Portu Zaharrean. Helburua bikoitza da: udalerriko eskaintza turistikoa zabaltzea, bisitariari astialdiko aukera gehiago eskainiz animatzeko bere egonaldia udalerrian luzatu, eta, azken batez, egiten duen gastua handi dezan, batetik. Bestetik, herritarren artean, Getxoko ondarea nabarmentzea. ◀

## Bueltan da Itzubaltzetako XI. Kuadrilla Eguna, hilaren 18an

**H**amaika jardueragaz dator aurtengo Itzubaltzeta/Romoko XI. Kuadrilla Eguna. Urtero legez, auzoko kuadrillen arteko topagunea izango da egun hori. Jai-giroan, belnaldien arteko hartu-emanak sustatzeko baliagarria izaten da. Festa zapatuan izango da, hilaren 18an. Egunari 12:00etan emango diote hasiera Santa Eugenia plazan, txupinaren jaurtiketaz. Ondoren, triki-poteoa egingo dute herrian; 15:00etan herri-bazkariari ekingo diote, eta gero, bingoa izango dute, Santa Eugenia plazan. Ostean, talde-argazkia eta gaztetxearen aldeko dantza egingo dute, 18:00etan poteoari eta ginkana musikatuari ekin baino



Auzoko kuadrilla ugari batzen da egun horretan.

lehenago. Azkenik, 00:00etan sariak banatuko dituzte, poteoaren amaieran. Sarrerak 12 euroan erosi ahal izango dira egunean bertan; barazkijaleentzako eskaintza ere egongo da. ◀

## Getxo Kirolak-en kontratazio berriak zalantzak eragin ditu

**E**H Bilduk zalantzan jarri du Getxo Kirolak-ek kirol-proiektuen planifikazio eta garapenerako teknikiaren aldi baterako lan-kontratazioa. Koalizio abertzalearen ustez, zuzendaritzak kontratazio hori «hasiera-hasieratik biziatu egin du, eta legea maltzurkeriaz erabilia izan da, hasieratik kontratatu nahi izan duten pertsonari lanpostua emateko». Kirol-erakundeak, oster, adierazi du prozesu horretan administrazio publikoetan langileak kontratatzeko exijitzen diren «berdintasun, meritua eta gaitasun irizpideak errespetatu direla». Azaldu dutenez, egungo arautegiari dagokion

kontratazio-prozesua abiatu da, hau da, deialdia eta hautagaien proposamenak Lanbideren bitartez eramanez, eta hautaketa Getxo Kirolak erakundeko eta Udaleko teknikari eskudunek osatutako epaimahaiak egin du. EH Bilduk, berriz, prozesu horretan bere oposizio-lana «uneoro» oztopatu dela salatu du.

Hautatutako pertsonak aurrera eroango dituen funtzioen artean daude kirol berrikuntzako hainbat proiektu eta Fadura kiroldegiko instalazioetan parke publiko bat zabaltzea koordinatzea, besteak beste. ◀

info+: [www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)

## Aixerrotako landan parkinga egiteko proiektua, gezurtatuta

**G**etxoko Udalak hilerriaren ondoko zelaian aparkaleku bat egiteko proiektua martxan duela ohartarazi zuten hainbat ezezagunek, Change.org plataforma bidez. Azaltzen dutenez, uztailearen 25ean Aixerrotako landa horietan ospatu ohi den Nazioarteko Paella Lehiaketa «arriskuan» dago, eta hori ekiditeko sinadura batzea abiatu dute, plataforma horren bitartez. Hala

ere, Udalak proiektu hori existitzen denik gezurtatu egin du. Adierazi duenez, Aixerrotako landan aparkaleku bat egitearen proiektuaren harira zabaltzen dabilen informazioa «asmo txarrekoa» da: «Nahasmena eragiteaz eta gezurra izateaz gainera, informazio hori traba da Itxas Argia taldean txapelketa antolatzeke modu aktiboan eta goraipegarrian lanean dihardutenentzat». ◀

## Ibilbide ekologikoen programa laguntzeko, 57.000 euro banatuta

**G**etxoko Udalak 57.000 euroko diru-laguntza eman dio aurtengo udalerriko ikastetxeetan egiten den «Ibilbide ekologikoak» izeneko Ingurumen Hezkuntzako programari. Hala, Getxoko ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Mailako Hezkuntzako ikasleen gurasoen elkarten federazioek 28.500 euroko laguntza bana jasoko dituzte. Getxoko Ingurumen Hezkuntzako programa 1982. urtean sortu zen, Getxoko ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoen elkarteek bultzatuta, hiru biologoren elkarlanari esker, eta Udalaren laguntzagaz. ◀

info+: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

## Gizarte Zerbitzuakaz lanean dauden 39 entitate, lagunduta

**B**azterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak laguntzen dituzten lau elkarteren artean, 104.000 euro banatuko ditu Udalak, esku-hartze sozialen laguntzeko ildoagaz bat, eta Gizarte Zerbitzuakaz kolaboratzen duten entitateentzako diru-laguntzen barruan. 39 entitatek jasoko dute laguntza, 240.481 eurokoa. Entitateek proiektuen %100 justifikatu beharko dute, finantzaketa, gehienez, %75ekoa izan arren, eta hori 2017ko urtarrilaren 16a baino lehenago egin beharko dute. Era berean, jarduera osorik Getxon egiten dela, edo, gutxienez, hartzailen %50 getxoartzarrek direla ere egiaztatatu beharko dute entitateek. ◀



**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura izanex gero, etxera eroango dizugu egunkaria!

prentsa · aldizkariak



Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

**GOIZEAN**

«Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa»

Prentsa · Fruitu lehorrak  
Aldizkariak · Librariak

Orduña mendatea, 1. GETXO · 94 430 22 13

## Erandoio

# Gazteak laneratzeko programak

**Txertatu Merkatuan egitasmoa** abiatuko du Udalak, formakuntza txikiko gazteak laguntzeko.

Erandoioko Udalak Txertatu Merkatuan izeneko programa martxan ipiniko du, 2018ra arte. Europar Batasunak babestutako ekimen horretan, dozena bat gazte parte hartu ahal izango du urte bakoitzean. Egitasmoan parte har dezaketen neska-mutilak 16 eta 30 urte bitartekoak izango dira, udalerrian errolatutakoak, eta, gehienez jota, Lanbide Heziketako lehenengo graduko titulua eduki ahal izango dute. Gazteei trebatzaile bat ipiniko diete. Langabetuei euren interesak, trebetasunak edo zaletasunak baliatu, eta horiek lan-aukera bihurtzen lagunduko die trebatzaileak, banakako zein taldekako saioetan. Prozesua hasteko, gazte bakoitzaren egoera az-



Txertatu Merkatuan egitasmoa bat dator Udal Enplegu Planagaz.

tertzeko elkarrizketak eta talde-dinamikak egingo dituzte. Ondoren, formakuntza-tailerrak emango dizkiete, teknikoki trebatu eta jendarte-berrikuntzan ahalduzkoak. Erandoioko Udalak egitasmoaren kostearen %8 besterik ez du bere gain hartuko, beste %92 Europako Gizarte Funtsak jarriko

baitu. Bestalde, ekain honetan, Ekin-tzaileen Hilabetea izeneko ekimena garatzen dabil Udala. Ekintzaileak lanak sortzera bultzatu gura ditu, Erandoioko Behargintzak eskaintzen dituen jardueraren hasierako laguntzak eta autoenplegu zerbitzua ezagutaraziz. ◀

info+: behargintza@erandioko-udala.net

## Arkitekto teknikoen elkargoak jarduerak Axpen batuko ditu

Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialak bere jardueraren Axpen batzea erabaki du. Elkargoaren Batzar Nagusiak hartu zuen erabaki hori pasa den ekainaren 1ean. Gobernu Batzordeak egindako eskaerari, gehiengo zabal batek baiezta eman zion, alderdi fisiko, ekonomiko eta komertzialak aztertu ondoren. Hala, onartutako proposamenaren arabera, aurrerantzean aparejadore edo arkitekto teknikoen erakundeak Bilboko bulegoa itxi eta Erandoioko Axpeko Erribera etorbideko 11. zenbakian eskainiko ditu bere zerbitzuak, Axpe industrialdean. Erabaki horren bidez, elkargoak «jabetzan dituen higiezin erabilera arrazionalizatzeko beharri» erantzun gura izan dio, bere azpiegiturak gaur egungo egoera ekonomikora egokitzeko. Erakundeak azken boladan abiatutako «doikuntza-politikari» ere jarraitu dio. ◀

## Gozogilea eta okina izateko hastapeneko ikasketak, abian

Gozogintzan eta okintzan Lanbide Heziketako lehen mailako gaitasun profesionalak lortzeko prestakuntza eskaintzen du Erandoioko Hasiarako Lanbide-prestakuntzak Programetarako Ikastetxe Publikoak, Erandoioko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntzagaz. Jose Luis Goyoaga kaleko zentroak proposatu du ikasturte biko oinarritzko Lanbide Heziketako programa hori. Bertan parte hartuko duten neska-mutilek DBH graduatu titulua lortzeko formakuntza ere jasoko dute. Programa 15 eta 17 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta, beti ere erreferentziatzen hartu-

ta aurtengo abenduaren 31n izango duten adina. Egitasmoaren matrikula erabat doakoa izango da, eta inskripzio-epea datorren uztailaren 15era arte zabalik egongo da. Halere, aurretiko matrikula betetzeko azken eguna bari-ku honetan izango da, ekainaren 17an. Bigarren ikasturtean ikasleek praktikak egingo dituzte enpresetan, euren ezagutza eta trebetasunak, maila akademikoan ez ezik, lan-inguruan ere egokiak izan daitezten. Besteak beste, estudianteei jakin beharko dute kanapeak sortzen eta sukaldako plater horzak zein beroak atontzen. ◀

izen-ematea: 944 170 963  
http://erandioko-udala.net

## Gazteentzako sukaldaritza- eta apainketa-ikastaroak, aukeran

Datozen asteotan, bost tailer eta ikastarotan parte hartzeko aukera izango dute gazte erandioztarrek, prezio merkean. Izan ere, 3, 4 edo 5 euro ordainduta, Gazteria Sailak antolatutako tailerretan eman dezakete izena. Ekainaren 27an, sukaldaritza osasungarriaren gaineko ikastaroa izango da (hilaren 17ra arte izena eman daiteke); ekainaren 28an eta 29an, kukuxumu eta lepoko apainketa tailerrak izango dira, hurrenez hurren (inskripzioak, hilaren 20ra arte); hilaren 30ean, Andaluziako sukaldaritza ikasteko aukera izango da (izen-ematea, hilaren 20ra arte); azkenik, uztailaren 1ean, Haitiko sukal-



daritza izango da gaia, ekainaren 21a baino lehen izena emango dutenentzat. Ikastaroak 17:30ean hasiko dira. Sukaldaritza ikasteko aukera izango da (izen-ematea, hilaren 20ra arte); azkenik, uztailaren 1ean, Haitiko sukal-

info+: 946 025 891 / gazteria@erandioko-udala.net

**LUBERRI**  
OBRAK ETA ZERBITZUAK

**Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea**

- Inausketak
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibaiertza 28A behe, 812 Lokala (ERANDIO)  
**629 41 18 38 · 94 467 17 13**  
luberry@luberry.biz  
www.luberry.biz

**txakoli mota gane tx.**  
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34  
(Akarlanda parkea) Golerri-Erandoio  
94 467 00 07 · www.txakolimotagane.com

**hiruka zaitez!**

Urtean **35€** baino ez

Trukean: zozketak, sariak ia astero, astekaria eguaztenero...

ikasi eta bizi izandakoa ez duzu ahaztuko

**UDAKO ESKAINTZA 2016 CURSOS DE VERANO**

**aeek** Gurena ikasteko para enlendañenak pour se compléter

**URIBE KOSTAKO AEK**

UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK

Leioa 944646063 · lamia@aeek.eus  
Getxo 944304734 · lauaxeta@aeek.eus  
Plentzia 946773607 · jentilbaso@aeek.eus  
Gorliz 946773646 · jentilbaso@aeek.eus

www.facebook.com/UnibeKostako-AEK  
www.aek.eus/blogak/unibekosta/  
www.aek.eus

ATZEKO JESARLEKUA ESTREINATU AURRETIK...

# Praktika

2016

## EZAZU

**Gidabaimena euskaraz**

Erandion edo Getxon erroldatuta bazaude eta 17-23 urte artekoa bazara, Udalak gidabaimena euskaraz ateratzeagatik:

**100 euroko diru-  
laguntza emango dizu!**

**IKASI ETA IRABAZI  
100 euroko erregai-txartelak  
zozketatuko ditugu.**

**Atzeko jesarlekua behar den  
moduan estreina dezazun!**

**Zozketan  
parte  
hartu!**

## Leioa



Epaiketaren egunean, euskaltegian egin zuten kontzentrazioa. © IÑAKI RODRIGUEZ URUETA

# Euskaltegiko langileen auzia

**Lan-egutegiaren harira, salaketa** kolektiboa ipini zuten; astelehenean izan zen epaiketa, Bilbon.

Bilboko lan-arloko epaitegian egin zuten astelehenean Mastitxu udal euskaltegiko irakasleek jarritako salaketa kolektiboaren gaineko epaiketa. Itziar Sinde hizkuntza-zentroko LABeko ordezkariak azaldu duenez, bulegariak ere salaketa ipini zuen; baina, horrek beste egun batean edukiko du epaiketa. Leioako Euskararen Erakundeak martxoaren 21ean onartutako 2016ko lan-egutegiagaz ez daude ados Mastitxuko irakasleak eta bulegaria. Langileek salatu zuten, «egutegi horiek ez zeuden hitzartuta erakundearen eta

langileen artean, langileek negoziatzeko denbora gehiago eskatua bazuten ere. Kontseilu Artezkaria osatzen duten gainerako alderdiek ere bilera atzeratzeko eskatu zuten, Udal Gobernuaren eta langileen arteko desadostasuna ikusita». Udalak onartu egin du bulegariak urtean 62 ordu gehiago egin beharko dituela, eta irakasleek 23 ordu gehiago; «2017an, irakasleek 40 ordu gehiago egin beharko dituzte», ordea, langileek diotenez.

Langileek protesta-ekintzak ere egin dituzte euskaltegiaren atean eta Bulevarden; besteak beste, elkarretaratzeko egin eta esku-orriak banatzen ibili dira hainbat egunez. Orain epaiaren zain daude. Epailearen erabakia ezagutu arte, azalpenik ez duela emango adierazi du Arantxa Diaz de Jungitu Euskara zinegotziak. ◀

## Gaztelueta auziko epaileak atzera bota du helegitea

Bizkaiko Lurralde Auzitegiko Fiskaltzak aurkeztutako helegitea atzera bota du Emilio Lamo de Espinosa Gaztelueta auziko instrukzio-epaileak. Fiskaltzaren ustez, beste delitu-mota bati dagozkio Gaztelueta-ko ikasle ohi batek salatutako sexu-erasoak. Horri jarraituz, uste du 9 urtekoa izan beharko lukeela gazte horren irakaslea zenarentzat eska daitekeen

gehieneko zigorrak, 10 urtekoa izan beharrean. Instrukzio-epailearentzat, ordea, «inguruabar astungarriak» daude, akusatuarentzat espetze-zigor handiagoa eskatzeko. Bitartean, 18 hilabete gehiagor luzatu du instrukzio-epaia Lamo de Espinosak; tartean, aita santuak agindutako ikerketaren txostena eskatu du magistratuak, hori ere auziari gehitzeko. ◀

## Sopela

## Sopelbus zerbitzuaren udako ordutegia abian ipini du Udalak

Irailaren 18ra arte egongo da indarrean Sopelbus zerbitzuaren udako ordutegia. Turismo Bulegoko langileek azaldu dutenez, astelehenean barikura (jai egunak izan ezik) ibilbide zirkular bat egingo du; berori lanera joan behar dutenentzat pentsatuta dago. Autobusa Atxabiribilgo aparkalekutik abiatuko da 07:30ean, 08:30ean eta 09:30ean; haur-eskolatik 08:00etan eta 09:00etan irtengo da. Atxabiribil, kanpina, Itxasalde, Triangu, Arriaterako biribilgunea, Larrabasterrako metro-geltokia, nagusien etxea, Urkoko kiroldegia, osasun-etxea, eliza, Urbaso, zaharren egoitza eta haur-eskola hartuko ditu ibilbideak. Bestalde, egunero, 10:00etatik 20:45era, ordu erdiro autobus-zerbitzua egongo da, ibilbide bigaz: bata, Larrabasterrako metro-geltokitik hasiko da; eta bestea, Sopelako zaharren egoitzatik abiatuko da. ◀

info+: 944 065 519

## Uztailaren 3ra arte egongo dira zabalik ikasteko gelak

Urtero legez, Sopelako ikasleek Uleku bi edukiko dituzte azterketak prestatzeko. Kurtzio kultur etxearen ekaineko ordutegia ondokoa izango da: 08:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara, aste-akabuan. San Pedro jaiak izan arren, hilaren 27tik 30era ere zabalik egongo da; eta uztailaren 1etik 3ra ere bai. Udal liburutegian, berriz, ekainean, 09:30etik 13:30era, eta 16:30etik 20:30era egongo dira zabalik ikasteko gelak, astelehenean bitartean. Barikueta, oster, 09:30etik 13:30era, eta 16:30etik 19:45 egongo da bertan azterketak prestatzeko aukera. Azkenik, uztailaren 1etik, 09:00etatik 14:00etara egongo da zabalik udal liburutegia, astelehenean barikura, behar duten ikasleentzat; aste-akabuan itxita egongo da liburutegia. Ekainaren 29ko San Pedro egunean ere ez dira zabalik egongo kultur etxe eta udal liburutegiko ikasteko gelak. ◀

## Helduen eskolaren lan berriak ikusgai daude

Udalaren laguntzagaz martxan ipinitako *Bizitzako istorioak konpartitzen* egitasmoa aurkeztu zuen eguaztenean, ekainak 9, Sopelako Helduen Hezkuntza Ikastetxeak; ekitaldia Kurtzio kultur etxean egin zuten. Besteak beste, hiru dokumental ekoitzi dituzte; ikastetxeko ikasle bategi bizi izandako istorioak kontatzen du lan bakoitzak; hiru sopeloztarren historiak dira, guztira. Dokumentalak egiteko, hainbat pertsonaren laguntza izan du helduen ikastetxeak.

Horrez gainera, Sopelako HHren gaineko 6 dokumental labur eta zentroaren egunerokoaren inguruan oinarritutako beste bat ere ekoitzi dituzte. Adinekoen hezkuntzari buruz zazpi ezezagunek daukaten ikuspuntua ere jaso dute.

Azkenik, Sopelako gida bat landu dute. Hezkuntza-zentroko ardura-dunek diotenez, «Sopela oso udalerr



© SOPELAKO UDALA

ezaguna da surf, parapente edo bestelako lasterketa arrakastatsuentzat; baina, bertoko istorioak, pertsonaiak, baserriak, kondairak ez dira hain ezagunak». Hutsune hori betetzea da gidaren helburua. Gida ibilbide bik osatzen dute: bata, kostaldekoa, eta bestea, baserrikoa. «Audiogida bat ere badago. Gaztelaniz eta euskaraz daude momentuz; baina, laster ingelesez ere egongo da», azaldu dute Helduen Hezkuntza Ikastetxeak. ◀

gida: [sopelaudio.cepaleioahhi.eus](http://sopelaudio.cepaleioahhi.eus)

SARTU GURE  
WEB BERRIAN  
[www.cianoplan.es](http://www.cianoplan.es)  
902 103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



## Berango

# Gazte ekintzaileen topaketa egingo dute

**Berango Hiri Gaztea** proiektua martxan ipini dute; eta, daborduko, hainbat ekimen antolatu dituzte.

Berangon, gazte ekintzaile bila dabilta. Horretarako, Berangoko Gazte Ekintzaileen Lehengo Topaketa antolatu dute ekainaren 27rako, astelehena. Hitzordua 19:30ean ipini dute, Berangoeta kultur etxean, eta 21:00ak arte iraungo duela iragarri dute. Bertan, parte-hartzaile guztiek lan-mahai batean parte hartuko dute, «gure herriko eta inguruko emakumeekin eta gazte ekintzaileekin», azaldu dute antolatzaileek. Horrez gainera, EAEko hainbat ekintzaile joango dira, ekin- eta sortze-prozesuan izan dituzten esperientziak

aurrez aurre kontatzera. Topaketa horretan parte hartu gura duten gazteek aldeztatik izena eman beharko dute. Azaldu dutenez, doakoa izango da, eta «interesaturik dagoen edozein pertsona joan daiteke, tokiak bete arte (15-20 lagun)». Ekimen hori Berango Hiri Gaztea proiektuaren barruan dago; joan den maiatzaren 25ean jarri zuten martxan.

## Idea-lehiaketa

Maiatzean abiatutako proiektuan zehaztutako helburuetako bat da ekintzailetza sustatzea, «garapen pertsonala, gizarte berrikuntza, autoenplegua eta garapen ekonomikoa lortzeko bidea» delako. Hala, Berangoko Gazte Lehiaketa - Ideiak ekimena ere abiatuko dute hilaren 27an. ◀

info+: [mesajovenberango@gmail.com](mailto:mesajovenberango@gmail.com)



## Bigarren eskuko azoka, hilaren 19an

Bigarren eskuko gauzen merkatua egingo dute hilaren 19an, domekan. Horren ordutegia 11:00etatik 15:00etara izango da, nagusien etxearen ondoan dagoen plazatxoan. Azoka horretan postutxoa ipini gura duenak hilaren 16ra arte, eguena, izango du aukera, Berangoeta kultur etxean asmo hori duela adieraziz. Salduko diren guztiak bigarren eskukoak izan beharko dute, eta ezin izango da ez janaririk, ez edaririk, ezta animaliarik ere saldu. ◀

info+: [www.berango.net](http://www.berango.net)

## Barrika

## Gaztetxoentzako udaleku irekiak antolatu dituzte

San Juan suak isiotzear daude udalerrian, barrikoztar eta inguruko auzotar guztien gozamenerako. Festak amaitu ostean, udalerriko neska-mutil txikien txanda izango da, Uda Txiki ekimenari esker. Udaleku ireki horiek ekainaren 27an hasi, eta uztailearen 8ra arte iraungo dute. Saiok 08:30-09:30etik 14:00-14:30era iraungo dute; txangoak dauden egunetan, berriz, amaiera ordua 17:30-18:00ak aldera izango da. Udalekuotan tailerrak, ikuskizunak, jolasak, kirol-ekintzak eta txangoak egingo dituzte, besteak beste. Eskaintza 4 eta 10 urte arteko neska-mutilei zuzenduta dago. Errol-datutakoek 78 euro ordaindu beharko dituzte; gainontzekoek, oster, 130 euro. Jakinarazi dutenez, izena ematen dutenen gurasoentzako bilera informatiboa egingo dute hilaren 20an, 19:00etan, Udal kultur gunean. ◀

izen-ematea: [946 775 163](tel:946775163) / [liburutegia@barrika.net](mailto:liburutegia@barrika.net)

## Lemoiz

## Baserrri-mundua ezagutzeko bisita gidatuak, uztailearen 2an

Uztailearen 1ean eta 2an, ENBA sindikatuak antolatutako Ongi Etorri Baserrira! ekimenaren 3. edizioa egingo dute Gipuzkoan eta Bizkaian. Horren helburua da baserrri-munduaren eta hiriaren arteko zubitan egitea. Horretarako, aurten, 25 baserritarrek euren egunerokoa ezagutaraziko dute egun bi horietan, antolatutako 15 ibilbidetan. Gurean uztailearen 2an, zapatuan, Gatika-Lemoizeko Etxebarria eta Ipar Lore baserriek euren nondik norakoak ezagutaraziko dituzte. Etxebarria baserrian, fruta, sagardo eta txakolinaren mundua erakutsiko dute; Ipar Lorekoek, berriz, erleak



info+: [www.ongietorribaserrira.eus](http://www.ongietorribaserrira.eus)

eta ezta. Bisiten ordutegia 11:00etatik 14:00etara izango da, eta horretan parte hartu gura dutenek hilaren 22ra arte izena eman ahal izango dute. ◀

## Gorliz

## UK-ko Berbalagunak piraguan ibiliko dira hilaren 18an

Uribeko Kostako Berbalagunek piragua-irteera egingo dute hilaren 18an, zapatuan. Hitzordua goizeko 10:00etan jarri dute, Gorlizko Aterpetxean (Itsasbide 58, Gorliz). Ondoren, itsasoratu, eta Kontrabandisten kalara arte egingo dute zeharkaldia. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, jardueraren horretan parte hartu ahal izateko, aldeztatik izena eman behar zen izena, hilaren 13a baino. Horretarako aukera izan dutenek gogoan izan beharko dituzte honakoak eramatea: bainujantzia; sandalia itxiak, busti daitezkeen zapatilak edo eskarpinak; eta esku-oihala, besteak beste. ◀

## Santiago jaietarako lau aurkezleak aukeratzeko castinga

Apurka-apurka uztail amaieran ospatuko diren Santiago jaietarako eginbehar guztiak osatzen hasi dira: kontzertuak, lehiaketak, jolasak... Hala ere, ospakizun horietarako aurkezleak behar dituzte oraindino ere. Hori dela-eta, Gorlizko Udalak egun horietan mikroa eskuan festetako hainbat ekimen dinamizatuko dituzten lau aurkezleak hautatzeko castinga prestatu du. Proba hilaren 23an izango da, 12:00etan udaletxean. Horretan parte hartu gura dutenek aldeztatik izena eman beharko dute, hilaren 22a baino lehen. ◀

izen-ematea: [euskeraz@uribekosta.org](mailto:euskeraz@uribekosta.org)

 **GetxoGas**

**GetxoGason  
Euskararekin  
bat!!**

Getxo eta Berango artean  
94 430 15 00

**JUAN MARI**  
Harategia · Urdaitegia



Baserriko haragia, produktu  
artisansua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA  
94 464 41 25

**GAVRKO**  
1967



GIZONENTZAKO  
MODA

ZABALA, 9. ALGORTA  
94 460 70 84

 **Jarrai  
gaitzazu:**



hirukaEus



@hirukaEus

[www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)

Uribe Kosta

# «Aita hilean behin ikusteko aukera du»

**Aita bisitatzeko 1.200 km-ko** bidaia egin behar du Aiurrek. Izan ere, sakabanaketa-politikak eraginda, Endika Lejarzegi Monterroxon (Galizia) dago preso, etxetik 600 kilometrora.



Endika Lejarzegi Algortako euskal presoaren bikotekidea eta Aiurren ama da Araitz Hidalgo.

IKER RINCON MORENO ►

**E**txerat elkarteak antolatuta, «Haurrak eta dispersioa» hitzaldia egongo da hilaren 16an, eguenean, Algortako Villamonte kultur etxean, 19:00etatik aurrera. Sakabanaketak umeei zelan eragiten dien jakiteko, Araitz Hidalgo algortarragaz egin dugu berba.

**Endika Lejarzegi, Aiurren aita, Monterroxoko (Galizia) espetxean dago, etxetik 600 kilometrora. Zenbatean behin bisitatzeko duzue?**

Hilean birritan joaten naiz ni, eta horietatik batean, Aiurrekin batera egin dut bidaia. Hortaz, Aiurrek hilean behin bakarrik ikusten du aita. Egin beharreko bidea oso luzea da, eta esfortzu handia da hori ume txiki batentzat.

Badaude beste kasu batzuk: umeei hiru hilean behin bakarrik ikusten dute ama ala aita. Gure kasuan, 1.200 kilometro egin behar ditugu joan-eto-

rrian, baina batzuek 1.100 kilometro joan eta beste horrenbeste bueltan egin behar dituzte.

**Zelakoak izaten dira bidaiak?**

Kontraesankorra bada ere, normalean umeei egiteko aurrez aurreko bisitak aste barruan izan ohi dira. Gure kasuan, bisitak igandean izaten dira; hortaz, ez dugu eskolarik galdu behar. Hala ere, bi egun osorik eman behar ditugu joan eta etorrian, horrek dakarren arrisku guztiekin. Gure esku dagoen guztia egiten dugu arriskua ahalik eta txikiena izateko; baina, esaten den bezala, dabilenari gertatzen zaio, eta gu, halabeharrez, asko gabiltza atzera eta aurrera.

**Zelan bizi du Aiurrek aitak jasaten duen dispersioa?**

Aiurrek lau urte bete ditu aurten; aitak 13 urte daramatza espetxean. Egoera nahiko naturala da berarentzat; ez du galdu, jaio zenetik aita ez baita egon.

Hala ere, orain gero eta gehiago galdeztzen du beraren inguruan. Espetxean dagoela azaldu diogu, eta badaki uzten ez diotelako ez dagoela aita etxean. Hori oso argi utzi nahi izan diogu.

**Zure ustez, zer-zelako eragina du sakabanaketak umeengan?**

Ume txikiek mugimendu handia behar dute, eta ordu luzez kotxean eman behar izatea, mugitu barik, esfortzu handia da eurentzat. Gainera, sendiak hurbilago egongo balira, aukera gehiago izango lituzkete haiek ikusteko, aurrez aurreko gehiago daudelako. Distantziak, azken finean, eurekin egoteko aukerak kentzen ditu.

**Zelan ikusten duzu etorkizuna?**

Nagusitzen direnean, umeei arazo gehiago izaten dituzte bidaiak egiteko, eskolaz kanpokoak eta abar hasten dituztelako. Gure kasuan, baina, Aiurrek 6 urte betetzen dituenean askatuko dute Endika. ◀

## Euskal Herriaren Lagunek bisita egingo dute eskualdean

**A**skapena erakunde internazionalistak antolatuta, munduan zehar dauden Euskal Herriaren Lagunak taldeetako hainbat kidek bisitatuko dute Uribe Kosta, ekainaren 17tik 18ra. Egun horietan, euskal errealitatea ezagutu eta hainbat ekitaldi egingo dituzte. Hala, hilaren 17an presoan aldeko elkarretaratzean parte hartuko dute, Algortako Telletxe plazan, 20:00etan. Zapatuan, ekitaldi publikoa eta herri-afaria egingo dituzte Algortako San Nikolas plazan, 21:00etatik aurrera. Txartelak Abian, Hator, Kurkudi eta Branka tabernetan eros daitezke, 10 euroan. ◀

## Seme-alabakaz musikagaz jolasteko saioa, Urdulizen

**G**urasolagun egitasmoaren harira, hainbat ekintza antolatu dituzte ekainean, 5 eta 12 urte arteko ume euskaldunakaz egiteko. Daborduko, tailer bi egin dituzte, hilaren 8an eta 14an, Gorkizean eta Plentzian, hurrenez hurren. Ekainaren 22an, eguaztenean, berriz, Urdulizen txanda izango da. Egun horretan «Musikarekin jolasten» saioa egingo dute, 18:00etatik 20:00etara, kultur etxean. ◀

## Kalkulu-orrietan 15 digituzko zenbaki bi biderkatzeko erronka

**G**etxoko Berbalagunak ekimeneko talde batek erronka bat helarazi gura die eskualdeko gazte guztiei: «ezetz aurkitu metodoren bat 15 digitu baino gehiagoko zenbaki biren arteko biderketa egiteko kalkulu orri (Excel motatakoak) baten bidez?» Erronka 18 urtetik beherako neska-mutilei zuzendu gura diete, eta irabazleak 100 euro jasoko lituzke. Emaitarik lortuz gero, astelehen, martitzen edo eguenean batean Algortako Aldai Patronatura (Karitate kalea) hurbiltzerik besterik ez dute egin beharko, 19:30etik aurrera. Bertan egongo da taldea batuta, eta aurkitutako metodoa euskaraz aurkeztu beharko zaie. ◀

**saiazgetaria**  
HOTELA  
Roke Deuna 25  
Getaria  
T. 943.140.143  
www.siazgetaria.com



# hirukaganda

Uribe Kostako asfekaria



hiruka.eus

2016ko ekainaren 16tik ekainaren 22ra arte

## San Juan suak argituko du Uribe Kosta

San Juan gaua edo udako solstizioa tarteko, ekainaren 23an, eguena, suak argituko du eskualdeko lur-zerua. Modu horretan, udaberria atzean utzi, eta udari ondoetorria egingo diote uribekostarrek, sutzarren inguruan dantzan. Barrikan eta Leioan aitzakia ederra topatu dute hainbat egunez jaietz gozatzeko; batean zein bestean hilaren 26ra arte, domeka, iraungo dute sanjuanek. Eskualdeko gainerako herrietan urteko gau magikoena gatz gozatzeko prest daude herritarrek; batean eta bestean egongo da zer edan, zer dastatu eta zer dantzan. Besteak beste, Erandioko Altzaga auzoan, hainbat urteren ostean, elkarlanari ekin diote berriro bertoko elkarte ugari, udako solstizioa (San Juan bezpera) ospatzeko. Erandioko Gazte Asanblada, Altzagako Merkatari Elkarte, Uztargi, Kabalgataren Lagunak, Gaztetxoak, Kantagunea eta Gautxorriak taldeen ekimenez, Tartangako zelaietan isiotuko dute sua, gauza eta kontu txarrak uxatzeko asmoz. Bertaraino, kalejiran joango dira, Irailaren 23a plazatik abiatuta. ◀



### Getxo

#### Telletxe plaza (Algorta)

**San Juan Sua batzordeak antolatuta:**  
18:30 *Parranda Tutiplen!* ume eta gurasoentzako dantza-festa, Kiko, Koko eta Moko pailazoakaz.  
20:00 Aurpegia margotzeko tailerra, neska-mutilentzat.  
20:30 Txokolatada eta munduko postreak.  
20:45 Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformako lagunen agurra.  
21:00 Kantak, Gorrondatxe abesbatzazag.  
21:30 Konjurua eta Urdiaingo San Juan kantaita, Itxartugaz.  
23:00 Dantza suaren inguruan.

### Berango

#### Lantzarte

17:30 Ur-txirista eta bits-festa.  
19:00 Haur-dantzaldia, Rock Legends musika-taldeagaz.  
20:00 Sua, txorizoa ogian, eta sagardoa.  
20:30 Xalbor Dja.

### Leioa

#### Udaletxe-ingurua

22:00 San Juan gaueko ikuskizuna, Hartzmugagaz, Boulevarden.  
23:15 Sua, udaletxean.  
00:15 Txokolate-jana, J.R. Aketxe plazan.

#### Txosna-gunea

**Maritxu Teilagorri Txosna Batzordeak eta Leioako Akelarrea elkarteak antolatuta:**  
22:30 Dantzaldia, Garilak 26 taldeagaz.  
00:00 San Juan gaueko akelarrea; ondoren, dantzaldia, berriro.  
\* Ekainaren 26ra arte egongo dira .

### Sopela

#### Udaletxe plaza

19:00 *Letter* denentzako antzezlan, Zipiriñe ikastetxean.  
20:15 Txokolatada, Udaletxe plaza.  
21:00 *Lenda* kalejira hankaluzekaz, izaki fantastikoakaz eta pirotekiagaz.  
22:00 Sua, Udaletxe plaza.

### Erandio

#### Madaripe zelaia (Astrabudua)

**Ta Orain Zer elkarteak antolatuta:**  
Arrastian: umeentzako tailerrak, musika eta txosna.  
22:30 San Juan sua eta dantzak.

#### Tartanga (Altzaga)

**Hainbat elkarteak antolatuta:**  
18:30 Umeentzako tailerrak, Irailaren 23a plazan, udaletxe ondoan.  
20:30 Kalejiraren hasiera Irailaren 23a plazatik.  
22:00 Sua piztea Tartangako zelaietan. Aurretik, txokolate-banaketa.

### Lemoiz

#### Armintza

**Armintzako Jai Batzordeak antolatuta:**  
19:30 Triki-poteoa, portuaren inguruko tabernetatik.  
22:00 Sua.

Aurten, alboka, txalaparta, sua, edariak txistor-jana eta txokolatada egongo dira gerturazten direnentzat.

### Plentzia

#### Legarrendo

19:00 Argi-zuziak eta txapliguak, Zaragozana pirotekiagaz.  
19:30 Txikientzako txokolatada.  
20:00 *Kontu kontari* ipuin-kontaketa, saloa eta bertsoak.  
20:30 Sutarainoko igoera, itsasadarretik.  
21:00 Suari ongi etorria, eta Pozoi Magikoaren Dantza.

### Gorliz

#### Andramariazpi

**Gaminiz Auzo Elkarteak antolatuta:**  
16:00 Puzgarriak.  
16:30 Panpina egin.  
18:30 Antzerkia: *Txarko ta bihotzaren pelikula*.

19:30 Txistularien kalejira.  
20:00 Askaria.  
21:00 Sua, txalaparta eta trikitia.

#### Errementari bidea

**Arats Dantza Taldeak antolatuta:**  
22:00 Txokolatea, queimada eta sua pelikula.  
19:30 Txistularien kalejira.  
20:00 Askaria.  
21:00 Sua, txalaparta eta trikitia.

### Barrika

#### Udaletxe plaza

**Barrikako Jai Batzordeak antolatuta:**  
18:00 Disko-festa familia osoarentzat, Mario eta Urko Djakaz.  
20:30 Tai ji erakustaldia.  
21:30 Herri-txokolatada.  
22:00 Sillexagaz sua egiten ikasteko erakustaldia.  
22:30 San Juan suaren espektakulua, Cirkifoc taldeagaz.  
\* Ekainaren 26ra arte izango dira San Juan jaietako ospakizunak.



# hiruka

Uribe Kostako astekaria



Gehigarri berezia  
2016ko  
ekainaren 16tik  
uztailaren 3ra arte

*Barrikan eta Leioan, sanjuanak!  
eta Sopelatan, sanpedroak!*

## UDAKO IKASTAROAK

UZTAILA ETA IRAILA

### MATRIKULA-EPEA:

Ekainaren 1etik 30era  
Del 1 al 30 de Junio

Azterketa ofizialak prestatzeko, **5 ordu egunero!**

## UDAN ERE EUSKARAZI

6-16 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAT  
PARA ALUMNOS DE 6-16 AÑOS

### MATRIKULA IREKIA!

Ordutegia

Uztailaren 1etik 27ra arte, 9:00etatik 12:00etara  
Del 1 al 27 de Julio, de 9 a 12:00h.



### BULEGO ORDUTEGIA:

09:30 - 13:30  
15:00 - 17:00

Algortako etorbidea, 104  
48991- Algorta (Getxo)

94 460 66 71  
j.a.agirre@euskalnet.net  
www.jagirre.net



# Leioako jaiak

Ekainak 16-27

## Sanjuanak



Ekitaldi batzuk

### Ekainak 16, eguena

10:00 Elkartasunezko liburu-azoka, Jose Ramon Aketxe plazan.

### Ekainak 17, barikua

19:00 Barraken irekiera, Agirre Lehendakaria plazan (Ikaztegiko aparkalekua).

19:30 Leioan Euskaraz Bizi Nahi Dut eskupilota-txapelketa, Sakonetan.

22:00 Pop Rock Lehiaketako finalisten kontzertua, Sakonetan.

### Ekainak 18, zapatua, Antzinako Eguna

Egun osoan Sanjuanetako VI. Pintxo Lehiaketa. Leioako tabernetan.

10:00 Sukalki-txapelketa, Kandelazubietan.

12:00 Bertsolari zirikatzaileak, Kandelazubietan.

15:00 Antzinako Eguneko bazkaria, Kandelazubietan.

19:00 Gazte Sua Jaialdiaren kontzertua: N.H.C. eta Onecero, Boulevarden.

23:00 Erromeria Urrats musika-taldeagaz, Boulevarden.

### Ekainak 19, domeka

12:00 Leioako Udalaren XVI. Jota Txapelketa, Kandelazubietan.

19:00 Akelarrerako entsegua, txosna-gunean.

### Ekainak 22, eguaztena

Egun osoan Herritarren Eguna barraketan, Agirre Lehendakaria Plazan.

18:00 Leioa Saskibalo Taldearen saskibalo-txapelketa, Txomin Arestin.

### Ekainak 23, eguena

11:00 Hirugarren adinekoentzako dantzaldia, Ikea Barri plazan.

19:00 Txupina eta pregoia, Mari Pepagaz eta Arlotegaz, udaletxean.

Ostean Kuadrillen jaitsiera.

21:00 Txupina, eta txosnen irekitzea, txosna-gunean.

22:00 San Juan gauaren ikuskizuna Hortzmuga konpainiagaz, Boulevarden.

22:30 Erromeria, Garilak 26 musika-taldeagaz, txosna-gunean.

23:15 San Juan sua, udaletxean.

00:00 San Juan gauaren akelarrea, txosna-gunean.

### Ekainak 24, barikua, San Juan Eguna

12:00 Meza eta ohorezko aurrekua, San Juan Bataiatzailearen elizan.

20:00 Kuadrillen play-backak, Kandelazubietan.

20:00 Kirolaren Gala, Boulevarden.

23:00 Kontzertua, Heissenberg eta Sorkun musikariakaz, txosna-gunean.

23:00 Erromeria, Trikizogaz, Boulevarden.

00:00 Su artifizialen ikuskizuna, Pirotecnia Zaragozanagaz, udaletxetik.

### Ekainak 25, zapatua

10:30 Kuadrillen arteko Tortilla eta Sandwich txapelketak, Boulevarden.

10:30 Leioa eta Askartza taldeen eskubalo-partida mistoa, Sakonetan.

11:00 Kuadrillen arteko herri-kirolak, Boulevarden.

12:00 Aurrekua, udaletxean, herriko abesbatzakaz.

12:00 Ikusi (Leioa) Makusi, familientzako margo-tailerra, Ikea Barri Plazan.

15:00 Kuadrillen bazkaria, Boulevarden.

17:30 Lur-gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketa, Udondoko bulebarrean.

19:00 Dantza-erromeria, Aiko taldeagaz, Ikea Barri plazan.

23:00 Horas Muertas eta Kop taldeen kontzertua, txosna-gunean.

00:00 Erromeria, Gora Herriagaz, Boulevarden.

### Ekainak 26, domeka

11:00 Kuadrillen arteko sokatira-txapelketa, Udondoko bulebarrean.

18:00 Gure Ohiturak dantza-taldearen erakustaldia eta erromeria, Errekalden.

19:30 Bertsolariak (Colina, Inazio Vidal, Ibarzabal eta Maia), Ikea Barri plazan.

22:30 Azken traka eta jaien amaiera, Boulevarden.

### Ekainak 27, astelehena

Egun osoan Umeen eguna barraketan, Agirre Lehendakaria plazan.



Egunez eta gauz zertaz gozatu izango da. © LEIOAKO UDALA / HIRUKA



INDARLAN

OBRAS Y EVENTOS S.L.L.

Gure bezeroen eskura honakoak jartzen ditugu:

**EKITALDIETAN:** komuna-eramangariak, modulu aurrefabrikatuak, txoznak, hesiak (itxiera, izuaren aurkakoak, oinezkoentzakoak...)

**ERAIKUNTZA-ZERBITZUAK ETA BESTELAKOAK:**

- Modulu aurrefabrikatuak (komunak, bulegoak, aldagelak),  
eskorak, segurtasun elementuak, itxiera-hesiak.

- Komuna automatikoak eta mantentze-lan berezituak.

Bermeo bidea, 5. Mungia. 94 471 14 41 - indarlan@indarlan.biz

# Aste Nagusia baino luzeagoak izango dira Leioako sanjuanak



Hamar egun iraungo dute Leioako jaiak.

**Ekainaren 23an txupinak** botako dituzte Leioako San Juan jaiari hasiera ofiziala emateko. Eguenetik aurrera, herria galaz jantzi, eta hamaika ekitaldi izango dira bertan.

**E**lkartasunak hasiko ditu jaiak eguenean, herriko behartsuak laguntzeko Leioako Udal Liburutegiak eta Sortarazik antolatutako liburu-azokagaz.

Barikuan, ekainak 17, gastronomia-ekitaldiak izango dira, pintxolehiaketa abiatzeagaz batera. Egun horretan ere, txikiak barrakak estreinatu ahal izango dituzte; Leioan Euskaraz Bizi Nahi Dut ekimenak, berriz, Sanjuanetako I. eskupilota txapelketa antolatuko du. Egunaren amaieran, Pop Rock Lehiaketako finalak jokatuko dira, Boulevarden, besteak beste Ocean Wittness talde erandioztarra lehiatuko da.

## Azkenengo Antzinako Eguna

Zapatuan, Antzinako Eguna egingo du bosgarren urtez Mugi Leioako Gazteak elkarteak, Kultur Leioagaz elkarlanean. MLG elkarteak iragarri duenez, aurtengoa «azkenengoa» izango da.

Horregatik, aurtengo edizioa «mundiala» izan dadin denek ekarpena eskatu dute, ekimenari «agur berezia» emateko. Besteak beste, sukalki-txapelketa, bertsolariak, euskal dantzak, herri-bazkaria, betiko jolasak eta Gazte Sua jaialdia izango dira, Kandelazubieta, Boulevard eta beste gunetan. Domekan, beste jarduera askoren artean, Leioako Udalaren XVI. Jota Txapelketaz gozatzeko aukera egongo da, 12:00etan, Kandelazubietan. Iazko irabazleak Haizea Hormaetxea leioaztarrak eta Lander Campos santurtziarra izan ziren. Lau egunen ostean, leioaztarrek egun biko etenaldia egingo dute jaialdian, arnasa hartu eta indarrak batzeko. Hori eginda, ekainaren 22an, eguaztena, festa-giroari ekingo diote berriro ere, barraken herri-prezioen eguna eta saskibaloi-txapelketa baliatuta. Eguenean, berriz, txupin bana botako dute udaletxean eta txosna-gunean, festei hasiera berria emateko. ◀

**URONDO**  
Tabako denda

Sabino Arana 67, Leioa.  
944 64 92 33

GORA LEIOAKO JAIK!

**KURKUDI**  
HERRIKO TABERNA

Sabino Arana, 82 behea - Leioa  
94 480 26 55

**hiruka zaitez!**

Trukean:  
zozketak, sariak ia astero,  
astekaria eguazteno zure emailen...

Urtean **35€** baino ez

**kipula**

HERBORISTERIA - ALIMENTACION Y COSMETICA BIO  
CRIANZA NATURAL - TERAPIAS ALTERNATIVAS

Sabino Arana 82, LEIOA  
Saloneta polikrologi surrentan

944 642 749 - <https://kipulablog.wordpress.com/>

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

**BETIKO**  
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA  
94 464 23 64/94 464 33 07  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

digitala  
inpresio

**Leioa**

**KOPILEIOA**

Inprimatze Digitala  
Formatu Guztietan  
Z/b eta Koloretan

**KOPILEIOA**

sabino arana 82 - 48940 leioa  
tel 944649176 - fax 944014431  
monkopileioa@gmail.com

**RENAULT**  
Passion for life

**LEIOA BERRI**

Iparagirre ETORBIDEA, 94

94 480 42 90

[www.renault.es/concesion/leioaberrri](http://www.renault.es/concesion/leioaberrri)

# Barrikako jaiak

## Ekainak 18-26 Sanjuanak



### Egitaraua

#### Ekainak 18, zapatua

- 09:00 Zazpiko futbol-txapelketa, futbol-zelaiain.
- 09:00 IV. Herri-ibilaldi Luzeko (13 kilometro) irteera, Txintxilandia plazatik.
- 09:00 IV. Herri-ibilaldi Laburreko (3,5 kilometro) irteera, Txintxilandia plazatik.
- 13:00 Adi metodoaren erakusketa, Txintxilandia plazan.
- 17:30 Euskadiko Lur-gaineko Sokatira-txapelketa, 640 kilokoan, tabernen ondoko landan.
- 19:00 Aita Gotzon abesbatzaren pregoia eta txupina, udaletxeko plazan.
- 19:30 Txoborro magoa, udaletxeko plazan.
- 19:00 Testing-programa.
- 20:00 Sardina-jana eta sagardo-festa, udaletxeko plazan.
- 21:00 II. Barrika On Air banda- eta dj lehiaketa, udaletxeko plazan.
- 00:00 Alkoholemia-testa, udaletxeko plazan.

#### Ekainak 19, domeka

- 10:00 XVI. Nekazaritza eta Artisautza Azoka, udaletxeko plazan.
- 11:00 Txu Txu tren: frontoia - nagusien etxea - Garramune.
- 11:30 Bertsolariak: Josu Landeta eta Iñigo Kortazar, udaletxeko plazan.
- 11:30 XL. sukalki-txapelketarako izen-ematea, udaletxeko plazan.
- 12:00 Barrikako silexa lantzeko tailerra, udaletxeko plazan.
- 13:00 Barrikako Euskal Dantzak Taldearen erakustaldia, udaletxeko plazan.
- 14:00 Bendeja-txapelketako sari-banaketa, udaletxeko plazan.
- 15:00 Sukalki-txapelketako sari-banaketa, udaletxeko plazan.

#### Ekainak 23, eguena

- 18:00 Familientzako disko-festa, DJ Pakogaz, udaletxeko plazan.
- 20:30 Tai ji erakustaldia, udaletxeko plazan.
- 21:30 Txokolate-jana, udaletxeko plazan.
- 22:00 Silexez sua egiten ikasteko erakustaldia, udaletxeko plazan.
- 22:30 San Juan suaren ikuskizuna Cirkifoc taldeagaz, udaletxeko plazan.

#### Ekainak 24, barikua

- 11:00 Meza nagusia, elizan.
- 12:00 Aita Gotzon abesbatzaren eta Sopelako Abesbatzaren emanaldia, udaletxeko plazan.
- 13:30 Agurra, Barrikako Euskal Dantzak Taldeak dantzatuta, udaletxeko plazan.
- 14:30 Herri-bazkaria, udaletxeko plazan. Txartelak salgai hilaren 17ra arte liburutegian, eta 18tik 22ra, txosnan.
- 16:00 Dantzaldia Arotsak gidatuta, udaletxeko plazan.
- 16:30 VII. Kirol-jardunaldi askotarikoa, Barrikako Abaroa tenis-taldeak, Barrikako Piragua Taldeak eta Barrikako Futbol Eskolak antolatuta.
- 20:00 Txistor-jana, udaletxeko plazan.
- 20:00 Dantza-plaza, Saltoka taldeagaz, udaletxeko plazan.
- 21:00 Emakumezkoen arteko Gaueko III. Padel eta Tenis txapelketa, Abaroa tenis-klubean.

#### Ekainak 25, zapatua

- 11:00 Umeentzako parkea eta puzgarriak, udaletxeko plazan.
- 12:00 Txopolis fanfarrea, udaletxeko plazan.
- 12:30 Margolari Gazteen Kanpoko Lehiaketa, udaletxeko plazan.
- 18:30 Monda Lironda pailazoak, udaletxeko plazan.
- 20:00 Saiheski-jana, Udaletxeko plazan.
- 21:00 Gizonekoen arteko Gaueko III. Padel eta Tenis txapelketa, Abaroa tenis-klubean.
- 21:00 Erromeria, Batek Daki taldeagaz, udaletxeko plazan.

#### Ekainak 26, domeka

- 09:00 Pala-txapelketaren finala, udaletxeko plazan.
- 12:00 Bizkaiko Orga-jokoaren Txapelketa, udaletxeko plazan.
- 13:00 Bits-jaiak, udaletxeko plazan.
- 14:00 Kartel, pala, eta margo txapelketen sari-banaketa, udaletxeko plazan.



Jaietako sei egunetan Barrikan ez dira faltako jan-edana, musika eta giro ona.

## Sua prest dago!

**Hilaren 26ra arte** jaietan murgilduta ibiliko dira barrikoztarrak.

**P**asa den domekan, Argazkilaritza Rally digitalaren bigarren edizioak abiatu zituen Barrikako festak. Hala ere, benetako hasiera zapatu honetan helduko da, Aita Gotzon abesbatzak irakurriko duen pregoia eta txupina entzuteagaz batera. Handik aurrera, hamaika ekitaldi izango dira herrian, txepelenak ere animatzeko hainak. Musikaren aldetik, hilaren 18an, II. Barrika On Air banda eta DJ lehiaketa

ta egingo dute. Bigarren asteko eguean, ordea, familia osoarentzako disko-festa prestatuko du DJ Pakok. Bestalde, bigarren zapatuan Batek Daki taldeak joko du, erromerian.

Jaietako ohiko protagonista, San Juan eguneko bezperako sua, Cirkifoc taldearen ikuskizunak lagunduta etorriko da aurten. Baina garbizaleek eta kuxkuxeroek antzina sua zelan isiotzen zen ikasi ahal izango dute, sutearen ondoan berotu aurretik. Kirolzaleek ere izango dute zertaz gozatu Barrikako festetan; zapatu honetako herri-ibilaldirako izen-ematea kultur-gunean egin dezakete barikura arte, edo probaren egun berean irteeran. ◀



Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28  
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunailkastola.eus

**ARTOLOZAGA**  
ANAIK  
**Tailerrak**

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

**Sopelan**  
Gatzarriñe z/g  
94 676 00 13  
94 676 38 14  
www.taileresartolozaga.com

**Sestaon**  
Miguel Servet, 6  
94 472 13 74



**Jatorrizko bermea  
mantentzen dugu!**



# San Pedro eta Karmeneko jaiak hilaren 19an aurkeztuko dituzte

**Sopelako eta Larrabasterako** Jai Batzordeak domeka honetan aurkeztuko ditu herriko jaien egitarauak. Orduantxe jakinaraziko dute aurtengo sanpedroen eta karmenen ospakizunetarako zer prestatu duten.

**P**irata zuhurrak edo egoskorrak legez, Sopelako eta Larrabasterako Jai Batzordeak ondo gordeta dauka bere altxorra: aurtengo sanpedroetarako zer-zelako egitaraua prestatu duen ez dago jakiterik, domeka honetara arte, behintzat.

Hala, hilaren 19a arte ez dago ezertxo ere iragartzetik; jakiteko gozoz daudenei egun horretako eguerdiko 12:00etan udaletxe aurreko plazara bertaratzeko deia egin die Sopelako eta Larrabasterako Jai Batzordeak: «Sopelako elkarte eta herritar guztiak udaletxera etortzera gonbidatzen zaituztegu». Jaien egitaraua ezagutarazi, kartel irabazlearen sari-banaketa egin eta beste hainbat ekintza iragarri ditu aurkezpen-ekitaldi horretarako jai-batzordeak: «herriko elkarteak ere izango dira ekitaldian, eta jaiak sustatzeko

argazkia aterako dugu; erdu zuen kamiseta edota elkarteko apaingarriren batez eta jaietako zapiagaz». Aurten pregoia nork edo zein taldek irakurriko duen oraindino ezkutuko sekretua bada ere, jaiak ekainaren 28an hasiko direla ondoriozta daiteke, segurutik; izan ere, kartel-lehiaketaren eskakizunetan adierazten da kartelean agertu «beharreko testua» dela «San Pedro ekainak 28tik uztailak 3ra». Horrenbestez, gehiago jakiteko irrikan dagoenak badaki nora jo: udaletxeko plaza, domekan, eguerdiko 12:00etan.

Bestalde, ezin gogoratu barik utzi, azkenengo urteetako joan-etorrien ostean, aurten txosna-gunea Loroño kalean bertan lekutu dutela: Akilino Arriola kaletik abiatuta, udaletxearen ondoan. Jauregizar plazako lanak direla-eta, aurten, txosnak leku horretan ipintzea adostu dute Udalak eta



© SOPELAKO UDALA

jai-batzordeak, beste zenbait kokagune aztertu eta gero.

## Hurrengoak, Karmen jaiak

Kartel-lehiaketako baldintzei jarraituz, Karmen jaiak uztailaren 14tik 17ra bitartean ospatuko dituzte Larrabas-

terran. Horien egitaraua ere hurrengo domekan aurkeztuko du jai-batzordeak. Azkenik, Santa Marina eguna uztailaren 20an ospatuko dute sopoloztarrek. Kartel-lehiaketaren lan denak Kurtzio Kultur Etxean egongo dira ikusgai uztailaren 3ra arte. ◀

**La Kala**  
Sopela

IPINTXO GOXO GOXOAK!  
IJAJETAN KONTZERTUAK!

Sertutxa, 5  
SOPELA

944 048 108

**Laiak**

Bentatxu 2, SOPELA  
94 676 03 28

**GOSARIAK + PINTXOAK**  
Giro eta musika onena  
Ondo pasa jaietan!

**Oinutsik**  
Kontsulta podologikoa  
Nahia Andrés Bilbao (Kol. Zb. 236)

Zubigane 4, SOPELA - 94 404 74 20  
podologiaoinutsik@gmail.com

**erroia**  
Kafetegia

**ONDO PASA JAIETAN!**  
Eleizalde, Sopela  
94.404.86.48

**meñakoz**  
Jatetxea

Arrain eta okela  
txingarretan adituak!

946 572 709  
Zubigane 1, Sopela  
www.restaurantemeñakoz.com

**MUGI**  
FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Tendinitis
- Esginzeak
- Osteopatia
- Bizkarreko mina
- Giharretako lesioak

PARTIKULARRAK ETA ASEGURU KONPAINIAK

**Loitzun Izaola**  
Fisioterapeuta  
kol. zb./col. n. 459

**Iratxe Olabarrieta**  
Fisioterapeuta  
kol. zb./col. n. 589

Sabino Arana 30 atzean - 48600 Sopela  
94 676 05 60 627 67 45 36

**DeyK**  
Danatarik

Enrique Urrutikoetxe 2, SOPELA

946 754 998

**Cien**  
Pies

Akilino Arriola, 7 - SOPELA  
946 760 894  
cienpies@cienpies.info

# Sopelako jaiak

## Sanferminetako lau t'erdiko Aspekoren finala, uztailaren 3an

**Pilotazaleek egundoko aukerak** izango dituzte eskupilotaz gozatzeko, Sopelako San Pedro jaietan; batetik, herri-txapelketa, eta, bestetik, lau t'erdiko San Fermin txapelketako Aspekoren finala, udal frontoian.

**U**rtero legez, Sopelak maila handiko pilotariak hartuko ditu aurten ere San Pedro jaietan. Festak ekainaren 28tik uztailaren 3ra arte iraungo dute, eta azkenengo egun horretan bertan, domekan, udal frontoia lau t'erdiko San Fermin txapelketako Aspe enpresakoen finala hartuko du. Norgehiagokaren ordua zehazteko dago oraindino.

Ekainaren 24an Iker Irribarria Altuna III.aren kontra lehiatuko da Eibarreko Astelena frontoian. Norgehiagoka horren irabazleak, berriz, Retegi II.aren aurka jokatuko du Logroñoako Adarragan, uztailaren 1ean. Ekainaren 26an, ostera, Mendizabal III.ak aurrean izango du Jon Jaunarena, Arrasateko Uarkapen. Bertan irabazten duenak Joseba Ezkurdiaren kontra jardun beharko du, ekainaren 29an, Mungian. Horrenbestez, Logroñoako eta Mungiako ga-

raile biek Asperen adarraren finala jokatuko dute Sopelako udal frontoian, uztailaren 3an. Bertan eta orduan, jokoan egongo da lau t'erdiko San Fermin txapelketako final handia jokatzeke txartela: Asegarceko adarraren irabazlearen aurkako partida izango da; uztailaren 7an, Iruñean.

### Herri-txapelketa

Mundu profesionaleko pilota partidez gainera, San Pedro jaietan udalerriko neska-mutilen artekoak ere antolatu ohi dituzte, «eskupilota-txapelketa herrikoia», hain zuzen ere. Aurtengoa lehiaketaren 10. edizioa da, eta, antolatzaileek azaldu dutenez, «berezia eta hunkigarria» izango da. Partidak ekainaren 5ean hasi ziren, eta izena eman duten 14 lagunek domeketan jokatzen dute. Finala uztailaren 2an egingo dute, zapatuan, 21:30ean, udal frontoian. ◀



Aspekoren finala udal frontoian jokatuko dute, uztailaren 3an.

**Irunbat**  
galp energia

Loiola Ander Deuna, 74  
946 764 625  
www.irunbat.net

Martitzen eta zapatuetan  
**ESKAINITZA BEREZIA!**

**Gora Sopelako jaiak!**

**FOTOXABIER SOPELA**

Gozatu jaietan eta ivri!

Doctor Landa z/g - Sopela  
94 676 03 09

**TABERNA FRONTOIA**  
Sabino Arana 4, Sopela

**BOKATAK!**  
3,50 euro

Tortilla, frantsesa bonito, borizo...  
**ondo pasa jaietan!**

**SORGINZULO**  
HERBORISTERIA

Produktu fitoterapikoak  
Elikagai ekologikoak  
Kontsulta terapeutikoak

**Banakako arteta**

Naparroa, 5 - Urduliz  
94 612 55 62  
herboristeria.sorginzulo@gmail.com

**4BIDE PINTURAK**  
mugarik gabeko koloreak

- Pintura eta berniz lanak
- Paper margotzak
- Zoruak

Loroño, 2 SOPELA • 94 676 29 92 • 4bidepinturak@gmail.com

**LURREN**  
Musika

GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRIA  
SOPELA, Ibaia Kalea 1 (Udajetxe aztean)

**hiruka zaitez!**

Urtean **35€** baino ez

Trukean: zozketak, sariak ia astero, astekaria eguazteno...

**TXIBERRI**  
EDANTOKIA

FRONTOI PARTIKULARRA

AITA GOTZON 4, URDULIZ  
94 676 07 15



Ekainaren 28tik uztailearen 3ra izango dira aurtengo Sopelako San Pedro jaiak.

# «Gorputza lehertu arte parte hartuko dugu»

**Akabukordun kuadrilla sopeloztarrak** irabazi zuen iaz Sopelako San Pedro jaien kuadrillen txapelketa. Euren arabera, kuadrillen partaidetza festetan guztiz «garrantzitsua» da, eta bertan parte hartzera gonbidatu dituzte kuadrilla denak.

IKER RINCON MORENO ▶

**U**dari ondoetorria egin eta hasiko dira San Pedro jaiak. Hori dela-eta, Sopelako kuadrillak prestatzen hasi dira ospakizunak dakarren guztiari behar bezala aurre egin ahal izateko, eta kuadrillen txapelketa irabazteko guran. Iaz Akabukordun taldeak jaso zuen txapela; agian, sekreturen bat dute...

**Iazko Sopelako jaien kuadrillen txapelketa irabazi zenuten. Aurten ere aurkeztuko zarete?**

Bai, noski! Aurten eta gorputza leher-

tu arte, herriko jaietan parte hartuko dugu. Gozatu beharra dago!

**Zein proba gainditu behar izan zenituzten pasa den urtean kuadrillen txapela buruan ipintzeko?**

Herri askotan egiten den jaitsieraz gainera, besteak beste, tortilla eta sangria txapelketak, ur jolasak, eta bola erraldioen jolasa; azkenengo horretan aurkariak suntsitu egin genituen!

**Zenbat kuadrillak parte hartu ohi dute Sopelako jaietan?**

Normalean 30 talde inguru aurkezten gara, bertan gazte ugari bizi baikara.

**Zer-zerelako giroa egon ohi da kuadrillen artean edo lagunarteetan?**

Sopela herri txikia da; guztiok gara elkarren lagun edo ezagun. Egia esanda, giro ederra dago jaietan.

**Egunero probak egiteaz gainera, gaubelak ere egingo dituzue, ezta? Gogorra da gaueko parrandaren ostean probetara gogotsu joatea?**

Beti dago baten bat kezaka probak egiteko indarrik ez duela esanez, baina guztion artean bete egiten ditugu, leher eginda egon arren, urtean behin ahalegintzeak ez du minik egingo, ezta?! Hurrengo egunetan ondo lo egin, eta kito!

**Zer nabarmenduko zenukete Sopelako jaietan? Zein da jarduerarik «inportanteena» edo «politena» zuentzat?**

Kuadrillen partaidetza guztiz garrantzitsua da, bestela zure herriko jaiak beste edozein herriko jaien antzekoak izango lirateke: gauez bakarrik edatera irtetea-eta, hori ez duzu gustuko zure herrian. Egun osoa aprobetxatu behar duzu, herriko jendearekin egon, eta herrian jai-giroa dagoela nabaritu behar da, guztion alaitasunerako.

**Jaietan parte hartzeko zelan animatuko zenituzkete sopeloztar denak?**

Behin parte hartu dugunok urtero errepikatzen dugu, eta horrek iradokitzen du giro ederra dagoela jarduera guztietan, partaide guztien artean. Beraz... ez bazara gurekin inoiz etorri, anima zaitetz! Herria herritarrona da, eta guztion artean geureak egingo ditugu jaiak! Primeran pasako duzue!

**Hilabete hasieran, Kuadrilla Eguna antolatu zenuten Sopelan...**

Egia da Sopelako jaietan kuadrillen parte-hartzea asko igo dela, baina urtearen barruan egiten diren gainerako jardueretan kontrakoa gertatzen ari da. Adibidez, orain dela urte batzuk Kuadrillen Egunean lagun talde gehiagok parte hartzen zuten. Hala ere, Kuadrillen Eguna, duda barik, egutegian gorritz markatuta, gordeta dugun egunetarikoa bat da; horregatik, guk beti parte hartu izan dugu. Aurten proposatutako dinamikak, jendearen gogoak eta adiskidetasunak egun polit batez gozatzeko aukera eman ziguten berriro. Eta aipatzekoa da Akabukordunekook egindako atun eta txokolata pintxoak irabazteko modukoa zela!

**Gaur egun kuadrillen antolakunde bat martxan dago horrelako ekimenak antolatzeko; horretan parte hartzen duzue? Zelan ikusten duzue hori?**

Bai, noski; aktiboki parte hartzen dugu antolakundean. Herria girotu, gazteria elkartu, eta aisialdi desberdin eta original baten bultzadan parte hartu behar dugula uste dugulako. ◀

**DIDAK**  
**hamilton**  
**IDIOMAS**  
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA  
TF. 94 676 30 12 - [info@didakhamilton.com](mailto:info@didakhamilton.com)

**ad**  
ARRIETARA ASESORES

Zerga, Lan eta Kontabilitate-aholkularitza  
Sozietateen eraketa  
Aseguruak

**94 676 62 12**  
Akilino Arriola, 51  
48600 - Sopela

**URIBEKOSTA**  
**EKODENDA**  
Ondo pasa jaietan!

BENTATXU KALEA 3  
SOPELA (Udaletxe atzean)

[www.uribekostaekodenda.com](http://www.uribekostaekodenda.com)  
946 522 558  
682 733 622

40°  
**GETXO**  
**JAZZ**  
 01 05  
 2016 UZTAILA  
 JULIO

21.00 BIOTZALAI PLAZA

- 01 OSTIPALA WIEPNES **JORGE PARDO HUELLAS CUARTETO**
- 02 LAZARIBATA SABADO **URI CAINE TRIO**
- 03 UTXANDEA DOMINGO **HERMETO PASCOAL & GRUPO**
- 04 ASTELEHENA LUNES **DEE DEE BRIDGEWATER QUINTET**
- 05 ASTEARTEA MARTES **ESPERANZA SPALDING PRESENTS EMILY'S D+EVOLUTION**



944 914 080  
 kulturetea@getxo.eus  
 www.getxo.eus




Antolatzaileak / Organizadores



Patroizkoak / Patrocinadores



Laguntzaileak / Colaboradores



Udako jaietan begira eta lagun izango gaituzu!



**hiruka**

24 orduz, [hiruka.eus/bereziak/jaiak](http://hiruka.eus/bereziak/jaiak)

Gainera, ekitaldi bereizgarrienen bideoak, herriko protagonistak elkarrizketak, jai-giroaren argazkiak, egitarauak...

Zure negozioa ere horren guztiorren bultzatzaile izan daiteke!

**UDAN ZEU ERE, HIRUKA ZAITEZ!**





## Euskeraz Olgetan, aste-akabuan

Uribe Kostako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuaren ekimenez, hurrenez hurren Plentzian, Urdulizen, Gortzen eta Sopelan egingo dute dantza-plaza, ekainaren 16tik 19ra. ◀  
**info+:** [www.uribekosta.eu](http://www.uribekosta.eu)

## Aguraineko sorginen bidera, Algortatik

Domeka honetan, ekainak 19, ikasturteko azken mendi-irteera egingo dute Egizu eta Ungari elkarteek. Hala, Fadura-ko aparkalekuan ipini dute hitzordua, 08:00etan. Txangoaren ostean, Araba Euskarazera joango dira. ◀

## Jakoba Errekondogaz berbaldia, sOrtuetan

*Bizi baratzea* liburuaren egileak ekainaren zean, eguazitena, eskainiko du hitzaldia, 19:00etan, sOrtuak egitasmoak antolatuta. Baratzak Getxoko Moreaga eta Goienetxe estratetan dauzkate. ◀  
**izen-ematea:** [644277455](mailto:644277455) / [egizugetxo@gmail.com](mailto:egizugetxo@gmail.com)



Algortan, 1999an abiatu zen balkoitik balkoira; lehenengo saioa San Nikolas plazan egin zuten. © ALBE

# Balkoitik balkoira bertsoan, Algortan

Lehenengo aldia, 180rean, Villabonan egin zuten legez, bertsolari bik kantatuko dute, bakoitzak balkoi batetik. Algortako Bertsolari Eskolak antolatuta, Jone Uria Albizuri algortarrak eta Beñat Gaztelumendi Arandia añorgarrak bota dituzte bertsoak Algortako Portu Zaharrean. ◀

**Noiz:** Ekainak 17, barikua.

**Ordua:** 22:00

**Non:** Portu Zaharreko Etxetxu plaza.

**Sarrera:** Doan.

## Liburu-azoka solidarioa

**Kultur Leioako arkupea | Leioa**  
 Zapatuan, 18:00etan itxiko dute. Liburu bakoitza euro batean egingo da. Batutako dirua Sortarazi elkartearentzat izango da.

## Karabi karaba, Ines Bengoaren ipuin-kontaketa

**Gobelako haur-liburutegia (Romo) | Getxo**  
 5 eta 10 urte arteko umeentzat. Euskaraz. Doan.

## Sopelako Musika Eskolako ikasleen entzunaldia

**Kurtzio kultur etxea | Sopela**  
 Piano, gitarra eta hizkuntza-musikala ikasten dabiltzan neska-mutilen emanalditxoa. Sarrera, doan (senideek lehenetsuna edukiko dute).

## Getxoztar Dantza Eguna

**Bihotz Alai plaza (Algorta) | Getxo**  
 Barikuan, Dantzarteko (20:00) ikasleak igoko dira agertokira; zapatuan, Carmen Vera (18:00) eta Ana Lara (20:30) dantza-eskolelakoak; eta domekan, Las Arenas flamenko-eskolakoak (12:30). Sarrera, doan.

## Leioako leku-izenak ezagutzeko ibilaldia

**Mastixu udal euskaltegia | Leioa**  
 Berbalduen egitasmoak antolatuta. Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiko Onomastika Zerbitzuaren arduradunagaz. Doan.

## Bosgarren edukiontzari buruzko berbaldia

**Armintzako kultur etxea | Lemoiz**  
 Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

## Euskal preso politikoen aldeko kontzentrazioa

**Telletxe plaza (Algorta) | Getxo**  
 Euskal Herriaren Lagunak erakundeak antolatuta, eskualdera egindako bisitan.

## CDART Gala

**Kultur Leioako entzungela | Leioa**  
 Ana Rosa Terceroren dantza-eskolako ikasleek jaialdia egingo dute. Sarrera: 6 euro.

## Umore-bakarrizketak, Tappy eta Danny Boy-Riveragaz

**Astrabuduko kultur etxea | Erandio**  
*Encomendados* zirkuituaren barruan. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

## Afari internazionalista

**Txiki ta Otaegi (San Nikolas) plaza | Getxo**  
 Euskal Herriaren Lagunak erakundeak antolatuta. Txartelak ekainaren 16ra arte egingo dira salgai (10 euro) Algortako Abian eta Hator, Itzubaitzeta/Romoko Branka, eta Leioako Kurkudi tabernetan.

## Bigarren eskuko azoka

**Nagusien etxearen ondoan | Berango**  
 Hilarren 16ra arte dago izena emateko. Parte-hartzea, doan. Informazio gehiago: [berangokultura@berango.org](mailto:berangokultura@berango.org)

## Getxoztar Abesbatzen Eguna

**Bihotz Alai plaza (Algorta) | Getxo**  
 Ondoko abesbatzek kantatuko dute: Areetxo, Biotz Alai, Erromoko Kantariak, Eskuz Esku, Gorrontatxe, Irutasun, Itxartu, Kimetz, Lilura, Ondarreta eta Zozoak. Sarrera, doan.

## Romeo and Juliet antzezlan

**Kurtzio kultur etxea | Sopela**  
 Shakespeareren heriotzaren 400. urteurrenean. Sopela institutuko ikasleakaz. Ingelesez. Doan.

## Eterno Mecano ikuskizuna

**Bihotz Alai plaza (Algorta) | Getxo**  
 Laia Benaches, Angel Bellido eta Aisha Bordas abeslariakaz eta Andres Isasi Musika Bandagaz (Alfontso Vilak zuzenduta). Sarrera: 5 euro.

## Bigarren eskuko liburuaren azoka solidarioa

**Algortako kultur etxea | Getxo**  
 Orduetgia ondokoa izango da: 11:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 21:00etara. Batutako dirua Lagun Artean gobernuz kanpoko erakundearentzat izango da.

## Pandero-joleen Festa

**Kurtzio kultur etxea | Sopela**  
 Meñakoz kultur erakundeak antolatuta. Doan.



Txoritokitik

IÑAKI  
ZARRAOA ZABALA  
Getxoko alkate ohia

## Katalunian baino emaitza txarragoa?

**E**kainaren 5eko galdeketa gertatu ondoren partaidetzari buruzko eztabaida piztu da eta galdeketaren aurkako komunikabideek, politikariek eta jendeak porrota izan zela azpimarratu nahi izan dute. Erakundeen inplikaziorik gabe, bestelako hauteskundeetan egiten den propagandarik gabe, egunero telebistetako informatiboetan agertu gabe, emaitzak ondorio zuzenik ez daukala, eta arrazoi ugari gehiagorengatik, zaila da partaidetza handia izatea. Beraz, ekainaren 5eko partaidetza handia edo txikia izan zen baloratzeko, bere maila eta baldintzapeko aurrekariari begiratu behar zaie. Galdeketa Katalunian egin zirenean, partaidetza ez zen berealdikoa izan. Hobeak hasierakoak bigarren urtekoak baino, hasieran herri oso nazionalistenetan burutu zirelako eta bukaeran herri handi eta hiriburuetan. Baina galdeketa haien ostean izugarritzko mobilizazioak gertatu ziren, erabakitzeko eskubidearen alde jende asko agertu zen, 2014ko azaroaren 9an Katalunia osoan egin zen galdeketa erraldoiak arrakasta itzela izan zuen. Gero hauteskundeak izan zituzten, eserleketan autodeterminazioaren eta independentziaren aldekoak irabazi zuten, dena hankaz gora jarritz.

Ziur aski Kataluniako herriz herriko galdeketa garaian zoritxar-igarleek partaidetza oso txikia izan zela esango zuten, baina geroko egoerak izutu ditu. Eta zeintzuk izan ziren Katalunian herri galdeketetan lortutako partaidetzak? 2009an (167 herri) % 27a; 2010eko lehen txandan (80 herri) %21a; 2010eko bigarren txandan (211 herri) %17a, eta 2010eko hirugarren txandan (49 herri) %13a. Nork esan dezake gure 34 herritan lortutako %29,6ko partaidetza txikia dela, huskeria dela, porrota dela? Edo etorkizuneko garaipenaren aitizindaria? ◀



Getxoztar Dantza Egunak 23 urte beteko ditu aurten; Getxoztar Abesbatzen Egunak, berriz, 11. edizioa egingo du. © GETXOKO KULTUR ETXEA

## Dantza Eguna

**Ekainak 17, barikua**

20:00 Dantzarte.

**Ekainak 18, zapatua**

18:00 Carmen Veraren dantza-eskola.

20:30 Ana Lararen dantza-eskola.

**Ekainak 19, domeka**

12:30 Las Arenas flamenko-eskola.

Emanaldi denak Algortako Bihotz Alai plazan izango dira; sarrera, doan.

## Abesbatzen Eguna

**Ekainak 19, domeka**

18:00 Getxoko 11 abesbatzen emanaldia, Bihotz Alai plazan. Sarrera, doan.

# Ahotsa eta dantza

**Ekainaren 17tik 19ra** Getxoko dantza-eskolen eta abesbatzen egunak ospatuko dituzte. Algortako Bihotz Alai plazan izango dira emanaldi denak; sarrera, doan.

**G**etxoztar Dantza Egunak 23. edizioa ospatuko du aurten. Bertoko lau dantza-eskola-tako taldeek eskainiko dituzten saioez gozatu ahal izango dute dantzazaleek, ekainaren 17tik 19ra; koreografia denak Algortako Bihotz Alai plazan egingo dituzte. Aurtengo edizioan, 4 eta 25 urte arteko 200 bat ikasle parte hartuko dute, Getxoko Kultur Etxeak iragarri duenez. Saioetarako sarrera doakoa da.

Aurtengo ekitaldian, parte-hartzaileek askotariko dantza-erakustaldia eskainiko dute. Horrela, gaur egingo koreografiakaz, dantza klasi-

koagaz, neoklasikoagaz eta flamenkoagaz gozatzeko aukera egongo da saioetan. Hori horrela, parte hartzen duten akademiako ikasleek estilo ugari erakutsiko dituzte agerlekuan. Algortako Dantzartek eta Ana Lararen dantza-eskolak parte hartuko dute, Itzubaltzeta/Romoko Carmen Veraren zentroagaz eta Las Arenas flamenko-eskolagaz batera.

### Denera, 380 abeslari

Bestalde, domeka honetan, ekainak 19, Getxoztar Abesbatzen Eguna ospatuko da: bederatzigarrena izango da. Ekimen horren bitartez, talde getxoz-

tarrei gorazarre egin gura diete; horrez gainera, Getxon errotze handia daukan tradizioa ere bultzatu gura dute. Algortako Bihotz Alai plazan 11 taldek kantatuko dute; bakoitzak kanta bi eskainiko ditu. Saioa 18:00etan izango da; sarrera, doan. Denera, 380 abeslari inguru batuko dira ekitaldian, Getxoko Kultur Etxeak adierazi duenez.

Aurten, ahots mistoen, behe-ahotsen, emakumezko ahotsen eta ahots zurien abesbatzak igoko dira oholtzara. Honako hauek izango dira parte hartuko duten taldeak: Lilura, Irutatsun, Biotz Alai, Areetxo, Kimetz, Itxartu, Gorrondatxe, Eskuz-Esku, Ondarreta, Erromoko Kantariak eta Zozoak. Saioan garai eta genero ezberdinetako egileen kantak abestuko dituzte taldeek, euskaraz, gaztelaniaz eta beste hizkuntza batzuetan. ◀

## Bigarren eskuko liburuak, Algortan eta Leioan

**S**oberan suertatzen diren liburuak azoka solidarioa antolatzen du urtero Kultur Leioak, San Juan jaien inguruan. Aurten Sortarazi elkarteak martxan dauzkan proiektu solidarioetara bideratuko dute batuko duten dirua. Getxoko Kultur Etxeak ere bigarren eskuko liburu-azoka egingo du, ekainaren 22tik 26ra, Villamonten. Bertan, liburuak, aldizkariak eta bildumak prezio sinbolikoan erosi ahal izango dira, bost egunez. Batuko duten dirua Lagun Artean GKEak Todos Santos Cuchumatan (Guatemala) herrian bultzatutako proiektu solidario bati emango diote. ◀

### Ekitaldiak

#### Leioa

**Ekainaren 16tik 18ra**

Liburu-azoka solidarioa, Kultur Leioako arkupean. Liburu bakoitza euro batean.

Orduetgia: 10:00etatik 20:00etara; zapatuan, 18:00etan itxiko dute.

Dirua Sortarazi elkartearentzat izango da.

#### Getxo

**Ekainaren 22tik 26ra**

XI. Bigarren Eskuko Azoka Solidarioa, Algortako kultur etxean.

Orduetgia: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara (domekan, goizez).

Dirua Lagun Artean GKEak jasoko du.

## Leioako leku-izenak ezagutzeko ibilaldia antolatu du barikurako Berbaldun egitasmoak

**B**ariku honetan, ekainak 17, Leioako leku-izenak ezagutzeko ibilbidea egingo dute Berbaldun egitasmoak lagunek. Goizeko 09:45ean abiatuko dira Mastitxu udal euskaltegitik, Krutzebeke auzora joateko; eta bertatik Perurira joango dira. Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiko Onomastika Zerbitzuaren arduraduna izango dute gidari. 2012ko azaroaren 14an, *Leioako leku-izenak* liburu herritarren eskura ipini zuten Udalak eta Euskaltzaindiak, aurreko hiru urtean udalerrian egindako toponimiaren gaineko ikerketaren emaitzak batu eta gero. Gorrotxategi izan zen liburuaren egileetako bat. ◀

## Erandioko Udal Musika Eskolaren urteurrenaren barruan, hainbat entzunaldi egongo da

Erandioko Musika Eskolak zilarrezko ezteiak bete ditu; 1991n hartu zuen Erandioko Musika Elkartearen lekukoa melomania bultzatu eta musika-ikasketak eskaintzeko. Hala, aurreko hilabeteetan egin duten legez, ekainean hainbat emanaldi eskaintzen dabiltza musika-eskolako ikasleak. Emanaldiei jarraituz, ekainaren 17tik 22ra bost saio eskainiko dituzte Erandiogoikoko gizarte-etxean (barikuan), Astrabuduko Josu Murueta plazan (astelehenean), Josu Murueta kultur etxean (martitzenean) eta Irailaren 23a plazan (eguztenean). Hilaren 21ekoak ezik, kontzertu denak 19:00etan izango dira; martitzenean saio bikoitza eskainiko dute, 18:00etan eta 19:30ean. Doan izango dira.

Egindako 25 urte luzeak ospatzen dabil Erandioko Musika Eskola, bertako lagunak hoberen dakiten moduan, doinu eta erritmo bizien bidez. 1988-89 ikasturtean abiatu zen musikaren irakaskuntza Erandion, Erandioko Musika Elkartearen ekimenez. Hiru urte beranduago, Udalak ardura hori hartu, eta 1991-1992an gaur egungo musika-eskola sortu zuen. Gaur egun, Eskolak zentro bana dauka Altzagan eta Astrabudian, eta, denera, lau urtetik gorako 350 bat ikasle dauzka. ◀

## Pandero-joleen festa egingo dute Sopelan, Meñakoz kultur elkarteak antolatuta

Meñakoz Herria eta Kultura elkar-atea euskal musika, dantzak eta kultura sustatzeko sortu zen. «Eus-kara erabiltzea gure jardura guztien helburu garrantzitsuenetariko bat da», taldeko kideek gaineratu dute. Meñakoz elkartearen barruan hainbat talde daude; horien artean dira hauek: umeen Eguzkilore dantza-taldea, txikiei beren-beregi zuzendutako Meñakoz dantza-taldea, eta nagusien dantza-plaza taldea. Nagusien talde horrek nagusientzako ikastaroak antolatzen ditu. Joan den urtean Sopela Kantari izeneko taldea batu zitzaion elkarteari, euskal kantagintza sustatzeko. Bestetik, Sopelako pandero-joleen taldeak urrats garrantzitsua eman du; aurten, ekainaren 22an, eguztina, ekitaldia eskainiko du Kurtzio kultur etxean, 19:00etan. Pandero-jole taldeak ikasturte amaierako jaia eskainiko du; besteak beste, musika, dantza eta kantuak egongo dira. Sarrera doan izango da. ◀



Balkoitik balkoirakoaz gainera, Barrika eta Leioako jaietan egongo dira bertso-saioak. © ALBE

# Bertso-doinuz jositako uda

**Algortako Bertsolari Eskolak** barikuan, ekainak 17, abiatuko ditu udako bertso-saioak; 22:00etan balkoitik balkoirakoa egingo dute, Algortako Portu Zaharrean.

Bertso-saioz jositako uda datorrigu, ALBE Algortako Bertsolari Eskolak iragarri duenez; izan ere, udagaz eta jaiakaz batera, bertso-saio egitarau aparta antolatu ohi du ALBEK. Hala, ekainerako, hiru emanaldi iragarri ditu: lehenengoa, bariku hone-tan, ekainak 17, Algortako Portu Zaharrean; bigarrena, domekan, ekainak 19, Barrikako San Juan jaien barruan; eta hirugarrena, ekainaren 26an, Leioako sanjuanetan. Horrez gainera, ekainaren 25ean, zapatua, ALBE Eguna ospatuko dute: 10:00etan abiatuko da autobusa Leioatik; 11:00etatik aurrera, berriz, txangoa egingo dute Gortizko itsasargira. Poteoa Armintzan egingo dute, 13:00etan, familia-argazkiak atera ostean. Azkenik, 15:00etan, bazkaria egingo dute Andraka sagardotegian; bertso-bazkaloste luzea izango da, ALBEko kideek iragarri dutenaren arabera. ◀

## Ekitaldiak

### Ekainak 17, barikua

**22:00** Balkoitik Balkoira, Algortako Portu Zaharreko Etxetxu plazan; sarrera, doan. Bertsolariak: Jone Uria algortarra eta Beñat Gaztelumendi añorgarra.

### Ekainak 19, domeka

**11:30** Bertso-saioa San Juan jaietako azoka postuetatik, Barrikako udaletxeko plazan. Bertsolariak: Iñigo Kortazar algortarra eta Josu Landeta getxoztarra.

### Ekainak 25, zapatua

**10:00etatik aurrera**, ALBE Eguna. Bazkariaren prezioa: 20 euro (adin txikikoak: 15 euro).

Informazio gehiago: [albegetxo@gmail.com](mailto:albegetxo@gmail.com)

### Ekainak 26, domeka

**19:30** Bertso-saioa, Leioako Ikea Barri plazan, San Juan jaien barruan. Bertsolariak: Sustrai Colina, Jon Maia, Nerea Ibarzabal eta Inazio Vidal.

info+: [www.albe.eus](http://www.albe.eus)

**Iñaki Bitxitegia**

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1  
94 430 23 45 94 460 27 41

Algorta

**aldai**

Tapiztegia  
Dekorazioa  
Erakusketa  
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32  
48990 Algorta  
94 460 90 31



Sarritik Borobiara

PAUL  
BILBAO SARRIA  
Kontseiluko Idazkari Nagusia

## Erabaki dezagun, bai, gure esku dago-eta

Ekainaren 5ean Euskal Herriko hainbat herritan erabakitzeko eskubidearen ariketa praktikoa egin zuten. Gure eskualdean hurrengo urterako aurrekusi dira hiru herritan aipatu galdeketak. Zinez interesgarria.

Izan ere oinarrizko eskubideen barruan kokatu behar da herri batek erabaki ahal izatea zer-nolako etorkizuna nahi duen bere buruarekiko. Gizartean egon daitekeen aitortza demokratikoarena da, gizarte hori osatzen duten herritarrei galdetzea zer izan nahi duten.

Are gehiago, erabakitzeko eskubideaz ari garenean hizkuntzaren etorkizunaz ere ari gara. Gure hizkuntza-komunitateari aitortza egin behar zaio zer nolako hizkuntza-politika garatzea nahi duen, inolako eskuhartzerik gabe.

Egun, hizkuntza-politika kudeatzeko hainbat eskumen esleituta daude. Eskumenak arras desberdinak dira Bidasoaren alde batean zein bestean, baina bietan ala bietan gure hizkuntza-komunitateari ez zaio askatasun osoa eskaintzen nahi duen hizkuntza-politika garatzeko.

Ikusi izan dugu Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkari Urkixok nola jokatu duen; edota Justizia Auzitegiek argitaratutako epaiak euskararen aldeko politiken aurka, edota suprefetaren jarrera jakobinoa. Hartara, adibide horiek ere erakusten dute beharrezkoa dugula erabakitzeko eskubidearen alde lan egitea. Ariketa demokratikoa ez ezik, justiziazkoa ere badelako geure etorkizunari buruzko erabakiak hemen, eta ez beste inon, hartzea.

Dena dela, badakigu berez ez digutela eskubide hori aitortuko, eta horrexegatik, ezinbestekoa da guztiok norabide berean jarri eta indarrez lan egitea. Auzoz auzo, herriz herri, eskuz esku, lot gakis-kion erabakitzearen aldeko aldarrari, gure esku ere badago. ◀



Umorea

JOKIN  
DE PEDRO  
Idazlea

## Mikroistoriorik onena, euskalduna

**A**ntzina, mundu zabaleko istorio laburren antologia zeukan liburu potolo bat erosi nuen, gero senitarteko bati utzi eta zoritxarrez galdu egin zena. Ondo gogoan dut, baina, bertako mikroistorio bat, egileak Euskal Herriko ipuintzat zuena. Euskalduna ez zen antologoaren hitzetan, beharbada munduan den istorio labur onenetako baten aurrean gara:

Ibiltari bat landa inguruan dabil, baserri artean. Larre eder batean bi behi mardul ikusi ditu bazkan, zuria bata beltza bestea, patxada ederrean; euron alboan baserritarra dago, samurtasunez aziendei so, begiak betean. Ibiltariak jarri du hizpidea:

- Behi ederrak, gero.
- Zeinengatik diozu?
- Zuria...
- A bai, zuria eder-ederra da gero.
- Beltza ez ala?
- Baita ere, baita ere.
- Zenbat esne ematen dute egunean?
- Zuriak ala beltzak?
- Zuriak.
- Hamabost litro bai.
- Eta beltzak?
- Baita ere, hamabost erraz.
- Pisuan ere galantak. Zenbatekoa?
- Zeinek?
- Ba, zuriak, esaterako.
- Zuriak hogei erralde, hortxe-hortxe.
- Eta beltzak?
- Baita ere, baita ere, beste horrenbeste.
- Zer denbora dute?
- Zeinek, zuriak ala...?
- Tira, zuriak!
- Zuria hiru urtekoa duzu.
- Eta beltza!?
- Baita ere, baita ere.

Ibiltaria, gaizkitzen hasita:

- Zer dela-eta «zuria ala beltza» galdetu behar hori, biak denean berdinak badira?
- Zera, zuria neurea da-eta.
- Eta beltza?
- Baita ere, baita ere. ◀



Gaur egun, 4 eta 47 urte arteko 111 dantzarik osatzen dute Astrabuduko dantza-taldea. © TRABUDU DANTZARI TALDEA

# «Euskal Herriko folkloreak etorkizun oparoa dauka»

**Trabudu Dantzari Taldea** 40. urteurrena ospatzen dabil; ekainaren 19ra arte, Euskal Astea antolatu dute, Astrabudian.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

**J**uan Miguel Luque Cañamero Trabudu Dantzari Taldearen ardurdunak azaldu duenez, 40. urteurrena ospatzeko Euskal Aste bi egingo dituzte; bata, orain, ekainean; eta bestea, irailean.

**Zer ekitaldi egongo da orain egiten zabilzaten Euskal Astean?**

Besteak beste, ostiralera arte erakusketa jarri dugu Josu Murueta plazan, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak utzitako jantziekin; ostiral arratsaldean, arropa horiek jantzi eta desfilea egingo dugu dantzariok, 20:00etan. Ea zelan ateratzen den...

**Dantza-talde galiziar bat ere gonbidatu duzue Euskal Astea, ezta?**

Athetic Goitiko taldeak antolatutako Athletic Eguna aprobetxatuz, zapatuan, Pontevedrako Arbo herriko Barca de Loimil taldea izango dugu gurekin; 18:30ean kalejira, eta 19:00etan dantza-erakustaldia egingo dugu elkarrekin. Izan ere, truke kulturala egingo dugu eurekin; uztailearen 23an

eta 24an gu joango gara Galiziara, Arbo boko taldearekin dantzatzera.

**Zazpi taldegaz batuko zarete.**

Astrabuduko jaiak abuztuaren 10aren bueltan izaten dira beti; dantza-taldeetako kideok oporretan egoten gara garai horretan, eta ezin dira gurea etorri. Hori dela-eta, Euskal Astea amaitzeko, domekan, dantzaldia egingo dugu, 12:00etatik aurrera, inguruko hainbat talderekin: Agurra (Algorta), Goi-alde (Erandiogoikoa), Gorantzai-leak (Sondika), Gure Ohiturak (Leioa), Lainomendi (Derio), Txikiak (Lamiako) eta Uztargi (Alzaga) batuko zaizkigu, hain zuzen ere.

“*Iraileko Euskal Astean atzoko zein gaurko hirurehun dantzari inguru batzea espero dugu*”

**Eta euskal dantzaren etorkizunari zer deritzozu?**

Trabudu Dantzari Taldeari dagokionez, nire ustez, etorkizuna eduki badaukagu; dirurik ez, ordea! Egindakoen artean, esaterako hiru urte daramatzagu euskal musikaren eskolarekin; txistua, txalaparta, panderoa, soinua eta alborak jotzen irakasten dugu. Pozik nago. Jende asko animatu da ikasten.

**Zer beste ekitaldi prestatu duzue Trabuduren 40. urteurrena ospatzeko?**

Irailaren 19tik 25era ere Euskal Astea egingo dugu Astrabudian; baina, horretan, Trabudu Dantzari Taldearen historia lau haizetara zabaldu gura dugu. Orain egin dugun bezala, astelehenetik ostiralera erakusketa egongo da; argazkiena, kasu horretan. Ostiralean bertan, hitzaldia egingo dugu, euskal dantzek Erandion izan duten presentziari buruzkoa.

Zapatuan, berriz, goizean, haurrentzako puzgarriak eta tailerrak egongo dira; eta arratsaldean, denok dantzatzeko dugu Astrabuduko futbol zelaian. Guztira, 300 lagun inguru batzea espero dugu; izan ere, Trabuduko kide izandakoek osatutako nesken zazpi taldek eta mutilen beste hamarren batek dantzatzea lortu nahi dugu. Lehendabizi kalejira egingo dugu, eta, gero, dantzaldia; gauean, berriz, Gariak 26 erromeria-taldeak joko du.

**Azoka eta Euskal Ezkontza ere prestatzen zabilzate, ezta?**

Bai. Bigarren Euskal Aste horren barruan, irailaren 25ean, domeka, azoka jarri nahi dugu San Lorentzo kalean; asmoa da musika-tresnak, jantziak eta materiala jartzea. Horretaz gain, egun berean, goizez, lehenengo Euskal Ezkontza egingo dugu Astrabudian; 1800. urtea balitz bezala. Bazkariaren ostean, Patxi eta konpainia taldea ekarri nahi dugu dantzaldirako. ◀



# Viso, Riotik gertu

Ruben Viso ezkerrean jesarrita, EAeko beste kirolari paralinpiko batzuekaz. © ESPAINIAKO BATZORDE PARALINPIKOA

**Ruben Viso Villegas** saskibaloijokalaria getxoztarra sartu da Espainiako Batzorde Paralinpikoak Rio de Janeirora joateko egin duen aurretiko hautaketan.

**O**linpiar Jokoak amaitu eta aste batzuetara, irailaren 7tik 18ra, izango da Joko Paralinpikoen hamabosgarren edizioa, Brasilgo Rio de Janeiro hirian. Kirol-lehiak iraungo duen 11 egunean, guztira, 176 estatutako 4.350 kirolarik jardungo dute 22 kirolelan. Sailkatze-bidean dagoen uribekostar bakarra Ruben Viso Villegas da: saskibaloijokalaria getxoztarra. Visok 22 urte ditu, eta Gasteizko Zuzenak taldeko kidea da orain dela pare bat astetik; aurretik, Bidaideak Bilbao BSR taldeagaz lehiatu da. Getxoztarra Espainiako 22 urte azpiko selekzioaren jokalaria izan da 2010 eta 2014 bitartean. Orditik hona, sarri deitu dute selekzio absolutuko kontzentrazioetara, baina oraindino ez du egin partida ofizialik. Visok egokitu-

tako gurpil-aulki bat erabiltzen du urritasun fisikoa arindu eta jokatzeko. Beragaz batera, Bizkaiko beste lauk dute Rion Joko Paralinpikoetan jarduteko aukera: Asier Garcia Pereiro saskibaloijokalaria bilbotarrak (Aste Nagusiko pregoilaria izandakoa); Raket Mateo Uriarte triatleta mungiarrek; Jose Maria Avendaño Lera saskibaloijokalaria galziarrak, Bilbon jokatzeko duena, eta Asier Agirre Santos atleta durangarrak.

**Olinpiar Jokoak**  
Bien bitartean, Olinpiar Jokoetan parte hartuko duten uribekostarrak zein-

tzuk izango diren baieztatzen doaz apurka-apurka. Horietako batzuk aipatzearen, azken uneko ezustekorik ezean, behintzat, hauek izango dira: Maria Lopez de Eguilaz eta Rocio Ybarra, Espainiako belar-hockeyko emakumezkoen selekzioko jokalaria eta Jolasetako kide ohiak. Rocio Ybarra selekzioko kapitainarentzat, bere hirugarren Jokoak izango dira, Atenasen eta Beijingen parte hartu zuen-eta.

Maria Lopez de Eguilaz, ostera, «Jokoetako atezain onena izateko guran» lehiatuko da. ◀

info+: [Paralimpicos.es](http://Paralimpicos.es)

## Waterpoloak gizarteratze-egitasmoetarako tresna

**L**eia Waterpolo Taldeak eta EAeko Down Sindromearen Fundazioak waterpolo tailer batzuetan jardun dute batera, azken asteotan. Leioako klubak azaldu duenez, leiozartaren aldetik hainbat entrenatzailek eta jokalarik parte hartu dute ekimean, fundazioaren zenbait kidegatz batera. Lehenengo elkarlan horrek lau aste iraun du; alde biek iragarri duteenez, berriro ere egingo dute etorkizunean. Lau aste horietan, fundazioaren partaideek waterpolo ezagutzeko aukera izan dute, hastapenetik. Uretan trebetasunak landu ostean, azkenengo saioa partida bategaz amaitu zu-



© LEIOA WATERPOLO TALDEA

ten, Sakonetan. Uxue Hernandez lehenengo taldeko jokalaria, eta klubeko Jon Lopez eta Josu Barrenetxea entrenatzaileek lagundu dute tailerretan. Alde biek nabarmendu dutenez, «esperiencia aberasgarria» izan da. ◀

## Askartzako kimuak dira txapeldunak

**K**imu-kategoriako waterpolo-ligaren titulua derbi leiozart bategaz erabaki da. Askartza Hawks taldea 12-5 nagusitu zitzaizen Leioa Mutilak taldeko partaideei. Leioako izurdeek ez zuten lortu podiuma erabat betetzea, kontsolazio-finalean Bilboko Maristas igeriketa-klubeko kideek irabazi baitzioten partida Askartza Bulls taldeari, 4-5 estuaren bidez. Aurtengo ligak azken urteotan baino partaidetza handiagoa izan du; denera, 11 taldek parte hartu dute. Eskualdeko beste partaideak izan dira: Leioa Neskak taldea, zazpigarrena; Getxo, zortzigarrena; eta Leioa Erraldoiak, 10. postuan. ◀

## Leioa Kirol Elkartearen batzar nagusia

**E**guen honetan, ekainak 16, Leioa Kirol Elkarteak bere bazkideen batzar nagusia batuko du. Hitzordua Sarriena kirol-instalazioetako erabilera anitzeko aretoan ipini dute, 19:00etan. Lehenengo deialdian quorumik izango ez balitz, ordu erdi atzeratuko litzateke batzarra. Bazkideek jorratu beharko dituzten gairik garrantzitsuenak honakoak dira: 2015/16 denboraldiaren kirol- eta ekonomia-balantzeak, eta datorren denboraldirako aurrekontuen proposamena. Aurten, gizonezkoen lehenengo taldeak eutsi dio 2. B Mailari, eta Leioako Emakumeak jaitsi egin da Euskal Ligara. ◀

# Astrabudua zuri-gorriaren orroa



Athletic Eguna hitzordu garrantzitsua da Astrabudian.

**Z**azpigarren urtez jarraian, Athletic Eguna ospatuko du Athletic Goitiko zaleen taldeak zapatu honetan, ekainak 18, Astrabuduko Mendiguren plazan, Trabudu eta Takolos taldeek lagunduta.

Lehoirik txikienek goizeko 11:00etatik aurrera gozatu ahal izango dute, puzgarriak izango dituzte-eta. Nagusiek ordu erdi gehiago itxaron beharko dute egunari zaporea hartzen hasteko, ordu horretan zabalduko baita txosna eta abiatuko baita pintxo-potea. Jardunaldiak zer edo zer izango du adin denentzat, tartean haurrentzako tailerra, *photocall*-a, eta kanta-trikitia Tapatan taldeagaz. 15:00etan, herri-bazkaria egingo dute. Txartelak zazpi euroan

eskura daitezke daborduko, Primera Linea eta Beltzez tabernetan. Menua paella izango da. Bazkalostean, aurretik egindako argazkien erakusketa egingo dute, interesdunei eman aurretik. Era berean, puzgarriak, helduen giza mahai-futbola, mahai-futbola eta dantzak izango dira. Ondoren, Trabudu dantzari-taldearen 40. urteurrena baliatuta, alardea izango da, Trabudu eta Pontevedrako Barca de Loimil taldeakaz. Eguna amaitzeko, 20:15ean txorizo-jana eta kontzertua izango dira; Diversion Rock eta Erruki Barik taldeek joko dute.

Athletic Goitiko zaleen taldea 2009an sortu zen, eta gaur egun 80 bat bazkidek osatzen dute. ◀

## Berango Atletismo Taldearen campusa

**B**erango Atletismo Taldea udako campusa prestatzen dabil; Algortako Fadura auzoko kiroldegian egingo dute atletismo-campus hori, txanda bitan: uztailaren 4tik 8ra, lehenengoa; eta uztailaren 11tik 15era, bigarrena.

Campusa 2004tik 2009ra bitartean jaiotako neska-mutilentzat izango da, eta, halandaze, Lehen Hezkuntzako ikasleei egongo da zuzenduta. Ordu-tegia goizean 09:00etatik 14:00etara izango da. Denbora horretan, gazte-txoeak hainbat jardura egingo dute hasierako orduetan, besteak beste, aretoko jolasak, eskulanak eta peli-

kulak ikustea; ondoren, zenbait atletismo-proba egingo dute, barbarako abiadura, hesiak, hondoa, jauziak eta jaurtiketak, besteak beste.

Eguerdian, jolasaldiaren ostean, kirola, igerilekua, txangoak eta olinpiada txikiak egingo dituzte.

Antolatzaileek zabaldu dutenez, campuseko astebeteko prezioa 60 eurokoa da, eta aste bikoak 120 euro balioko du. Bestalde, udako kirol-campusaren zuzendaria Enrique Castelo izango da, Berangoko klubaren atletismo-entrenatzailea. ◀

info+: enasport1@hotmail.com  
/ 618 459 747 / 696 229 963

## Uribe Kosta, Bizkaiko tosta-arraunaren jabe

**U**ribe Kostako arraun-elkarteek 38 domina irabazi zituzten pasaden astean Bizkaiko Tosta-arrauneko Txapelketan. Eskualdekoek jokoan zeuden 64 medailen erdiak baino gehiago lortu dituzte, beraz. Aurtengo txapelketa Ibaizabal itsasadarrean jokatu zen, Erandion, haur, kadete, gazte eta senior mailetan. Metal gehien batu zuen taldea Getxo izan zen, dozena luze bat domina eskuratuta. Algortarrek urrezko 4, zilarrezko 8 eta brontzezko 2 medaila lortu zituzten. Areetako Raspasek dozena bat lortu zuen: 9 urrezkoak (proba bitan ez zuten lehiakiderik izan), zilarrezko



Zenbait medailadun. © RASPAS

bi eta brontzezko bat. Lutxanak, ostera, urrezko eta zilarrezko hiruna domina lortu zituen, eta brontzezko bakarra. Azkenik, Plentziako Arkote klubak bost domina ditu: urrezko bat eta bina zilarrezkoak eta brontzezkoak. ◀

## Saskibaloitaldeek sariak jasoko dituzte

**E**guenean, Bilboko Bolueta auzoko Fever aretoak hartuko du Bizkaiko Saskibaloiares Festa Nagusia. Ekitaldi horretan, denboraldi honetako sariak banatuko dituzte, kategoria federatuetan zein eskola-kirolean. Ligei dagokienez, Getxosaski da Gazteen 2. Mailako txapelduna, gizonetako; eta New Team Senior 2.a, emakumetako. Bizkaiko Kopa hainbat taldek irabazi dute: Ugesaskik, Gazteen 1.-2. kategorian, gizonetako; Askartza Claret Ck, 2003ko Haur Mailan, nesketan; Getxosaskik, 2004ko minibasketen, nesketan ere bai; eta Betiko Ikastola Ak Minibasket mistoan. ◀

## Ponomariovek irabazi du sari neoklasikoa

**G**etxoko Neguri Langile auzoan bizi den Ruslan Ponomariov xake-maisu handi ukrainarrak Madrilgo Xake Neoklasiko Sariak irabazi berri du. 2002ko munduko txapeldunak garaipen bi eta berdinketa bi izan zituen. Ukrainarra gustura ibili zen jokoaren berezitasunak; lehenengo hiru jokaldirak zozkatzen dira. «Hori ez da arazoa izan, bizitza osoan partidetak aldagaiak ikasi ditudalako. Hasiera ateratzen zenean, nik ondotoxonekien zelan jokatu behar nuen», azaldu zuen Ponomariovek. Maisu handia pozik agertu zen emaitzagaz, baina bere ustez, «hobeto joka daiteke beti». ◀

## Tranko oztopo-jauzien zaldisaria, Goierri

**D**atorren zapatuan, ekainak 18, Erandioko Goierri zaldi-klubean, oztopo-jauzien zaldi-txapelketa autonomikoa antolatu dute bertako elkarteak eta Bizkaiko eta EAeko hipika-federazioek. Proba hori Tranko sarietaren barruan egongo da, baina hastapentetan dabilentzat. Parte hartu gura dutenek azken eguna eguna, hilak 16, izango dute izena emateko Euskal hipika Federazioaren webgunean, eta klubean ordainketa egiteko. Denera, zaldiek sei proba izango dituzte; lehenengo bostek jasoko dute saria. ◀

izen-ematea: Fvh.org  
info+: 695 418 955

## Sokatiraren 640 kiloko txapela jokoan, Barrikan

**E**randioko Goierri sokatira-taldeak 640 kiloko kategoriaren txapela jokatuko du zapatu honetan, Barrikan. Tabernen ondoko landak hartuko du Lur-gaineko Euskadiko Sokatira-txapelketa horren finala, 17:30etik aurrera. Bertara, abantailagaz helduko da Goierri A taldea, Laukizen Gaztedi Agaz berdindu eta Martiartun irabazi ostean. Goierriko jaietako deman, Laukizko talde nagusiak tiraldiak berdindu zituen erandioztarren lehenengo zortzikotearen aurka, baina galdu egin zuen Goierri Bren aurka. Erabakigarria izan daitekeen abantaila eman dio horrek Goierri A taldeari. ◀

## Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



## Getxo Jazz

**jaialdirako 4 sarrera bikoitz dauzkagu uztailaren 1, 2, 3 eta 4ko kontzertuetarako. Gura dituzu?**

Uztailaren 1etik 5era bitartean Bihotz Alaia plazan, 21:00etan, Getxoko Udalaren ekimenez.

Ekainaren 26a baino lehenago, helarazi erantzuna, zein kontzerturako sarrerak gurago dituzun, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus) edo 944 911 337

## Zorion agurrak 5€

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza...

Bidali zeurea!

[publi@hiruka.eus](mailto:publi@hiruka.eus)  
94 491 13 37



**ANA**  
BILBO - GORLIZ  
Barrrikako familia-  
ren partez

Zorionak, izeko Anatxu! Urteak bete ahala, gero eta ederrago zaude! Segi beti bezain alai, zure ahotsa entzuteak poztasuna dakarkigu. Maite zaitugu!



**AINHOA**  
DONOSTIA  
Etxeko partez

Gure lehengusu kutunenaren urtebetetzea da. Zorionak, poxpolin! Disfruta ezazu hondartzan, garagardo fresko bat eskuan... Musu potoloa, uribekostarron partez!



**IRAIA**  
ALGORTA  
Familiaren partez

Zorionak Bitxonaaa!!! Gero eta ederragoa zara neskato! Txuleta jatera eramango gaituzu? Musu izugarri handi bat, etxeko guztion partez... Maite zaitugu!

## Sudokua

				6	7	3		5
9	3		4		5	7		
	6				9			1
					3	8		7
8				4				
3				2	6			
6		9			4	1		
				7	8			3
						5		

Gogoan hartu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

## Soluzioa

4	9	5	2	6	1	3	8	7
3	2	6	8	7	9	4	5	1
8	7	4	1	7	3	5	6	9
6	5	4	9	2	8	1	7	3
2	3	6	1	4	7	5	9	8
7	1	8	3	5	6	9	4	2
1	4	7	6	8	3	7	9	5
6	8	7	5	1	4	2	3	9
5	6	3	7	9	2	8	1	4

## Horoskopoa



**Ura**  
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Munduagaz haserre zabilta, beharrea azken unean ezusteko gain-karga ezarri dizute-eta. Lasai hartu, eta oporretan pentsatu.



**Otsoa**  
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Futbolari kaxkarrak denboraldiaren amaieran legez, besteen erabakien zain egongo zara. Bitartean, oreka topatuko duzu bikote-harremanean.



**Adarra**  
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Gura duzun denagatik borrokatzea izango da zerbait lortzeko modu bakarra. Zirt edo zart egiteko unea heldu da.



**Hostoa**  
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Egun aldakorrek datozkizu; sentimenduak astindu-ko dizkizuten gertaerak ezagutuko dituzu. Bizitza beste ikuspegi batetik sumatuko duzu.



**Eguzkia**  
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Baduzu bidaiaren bat egiteko garai egokia. Zure jarrera baikorrak barne ziurtasun handia eragingo dizu datozen asteotan.



**Garia**  
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Lana eta betebeharrak pilatzen zaizkizun sententzia gero eta nabariagoa izango duzu. Ez da denbora kontua, estres-maila barik.



**Iratzea**  
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Ahaztutako zeregin bat bueltaka izango duzu buruan. Ahalik eta lasterren kenduz gero, patxadaz ibiliko zara; bestela, artega jarriko zara.




**Meta**  
(Irailak 17-Urriak 16)

Arazoei aurre egin eta pentsaera zabala mantentzen baduzu, urrunera helduko zara. Hala ere, asitiro joateak lagunduko dizu.



**Hazia**  
(Urriak 17-Azaroak 15)

Betikoa segitzeko, gogor ahalegindu beharko duzu, espero zenuen baino geldoago baitoa dena. Berrikuntzak ez dira errazak izango!



**Aitzurra**  
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Monotonian erortzeko arriskua kale-kantoiaren beste aldean dago. Maitasun-kontuetan, gatza eta piperra bilatu beharko dituzu.




**Lastoa**  
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Ez zaitze min duta sentitu, zure ahaleginen garrantzia ez badute kontuan hartu; damutuko dira. Arreta ipini jaten duzunari.



**Negua**  
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Gatazka nahaspilatsuak dira zure harremanetan; ordenan ipini beharko dituzu, konpontzeko kontu zailak izango badira ere.



Mundukatuak

Itziar Vellido Alcacena leioaztarra

## «Naturagune oso basatiak topatu ditut inguruotan»

Erasmus beka baliatuta heldu zen Itziar Vellido leioaztarra Suitzara, 1996an. Herrialdea gustukoa izan, eta denbora batez geratzea erabaki zuen. Bat-batean, hogeitun urte pasa dira, konturatu barik. Gogora ekarri duenez, Geneva hiria aukeratu zuen frantsesa ikasi ahal izateko. Gainera, lagun suitzar bat izateak lagundu zion egoera berrira egiten.

Suitzako gastronomiagaz ondo moldatzen da Vellido, «denetarik jaten» dutelako. Famatuak dira bertako esnekiak, gazta eta txokolatea. Era berean, Alpeetako herrialdearen jaki tipikoak dira *fondue* (gazta urtua) eta *La Raclette*. Azken plater horrek parilla elektriko batean urtutako *raclette* behi-gazta dauka osagai nagusi, patata egosiagaz, hestebeteakaz eta ozpin-pepinoakaz lagunduta. Besteak beste, *chasselas* mahatsetatik lortzen den ardo zuri arina gomendagarria

da *raclette*-gaz ezkontzeko. Suitzara jatea hemen baino «bi bider karuagoa da», baina batez besteko soldata kontuan hartuz gero, antzera ateratzen da. Leioaztarraren ustez, kultura-eta jendarte-ekimen ugari dago Gene-

**“Dantza egitera atera gura baduzu, beti topatuko duzu lekuren bat”**

van; «bilatu beharra daukazu», baina «dantza egitera atera gura baduzu, beti topatuko duzu lekuren bat» azaldu du. Oro har, «kultur bizitza alternatibo zabala» dauka Genevak, «betidanik». Erabili barik zeuden hainbat gunetan kultur eremuak sortu dituzte. Elkartegintza oso errotuta dago, eta horrek laguntzen du kulturaren eta

jendartearen ez ezik, politikoki ere demokratia parte-hartzailea izateko. Hiritarren «eskubideak eta betebeharrak argi daude zehaztuta». Bertako erakunderik garrantzitsuenak kantona-mendua da, eta Suitza horien konfederazioa da, arkitektoak azaldu duenez.

Vellidok faltan sumatzen ditu hementen tenperaturak eta kalera urte osoan atera ahal izatea, baina elurra gogoko du, eta horri esker neguak «oso aktiboak» direla dio. Ahalegin du da Suitzako mendiak eta herrixkak esploratzen, eta «izugarriak» deritze mendira joateko dauden erraztasunei: «naturagune oso basatiak topatu ditut». Norbaitek Suitzara hurbiltzea pentsatu badu, Vellidok bertaratu eta mendi-trenen bat hartzea gomendatuko lioke, «hiritik kanpoko eskualdeak esploratzeko». Bestalde, hiritarrek duten ingurumen-kontzientzia handia estimatzen du leioaztarrak. ◀

NOR DA

### Nongoa

Bilbon jaioa, Leioan bizi izan da.

### Adina

44 urte.

### Zertan dabil

Azken hogeitun urteotan beharrez dabil Suitzara, arkitektura-lanetan.

### Ikasketak

Arkitekturaren lizentziaduna da.

### Noiz arte Suitzara?

Ez dio epemugarik ipini bere egonaldia. Halere, ez du bizitza osoan leku berean egon gura. Espainian lan-harremanen bat topatu gura du, gehiago mugitzeko.

NON DAGO



### Lurraldea

Suitzar Konfederakundea.

### Azalera

41.285 km<sup>2</sup> (Euskal Herriaren bikoitza).

### Hiria

Geneva.

### Biztanleria

195.000.

### Hizkuntzak

Frantsesa da Genevako kantonamenduan berba egiten den hizkuntza nagusia. Halere, Suitzara lau dira hizkuntza ofizialak: frantsesa, alemana, italiarra eta erromantxera. Konfederazio osoan: aleman hiztunak biztanleen %64,9 dira; frantsesdunak, %22,6; italiaradunak, %8,3 eta, azkenik, bertoko erromantxera %0,5ek besterik ez du berba egiten. Estatuaren izena latinez dago: *Confoederatio Helvetica*.

### Dirua

Suitzar frankoa.

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua